

uk

173. zenbakia / 2010eko apirilaren 12a



ONDARE UDABARRIA

HIZKUNTZA ONDARE JARDUNALDIAK



2010/04/23

19.30ETAN
ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN




EREAGATIK MATXITXAKORA GOTZON ELORTZAREN DOKUMENTALAK

Euskaraz egin izan diren lehen dokumentalak, 60ko hamarkadare egin zituen Gotzon Elortza argitarariak. Gurek argitaratu eta Gotzonen irakurleak berriro ezagutu dituzte eta erantsi dituzte beren iritzia.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmingua, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Hodei Torres, Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTITZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Munduaren akabera badatorrela, Hodei Torres.
7. LEHEN ETA ORAIN. Urdulizko eliza, 1961.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. J. Perales eta G. Barba, Eztabaida Gunea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Umeentzako jolas-guneak.
28. ARGAZKIA. *Be beauty*, Asier Mentxaka.
30. SAKONEAN. Sarea Josten ekimena.
34. FOTOGRAFIA. Sarea Josten: Bizarra Lepoan, ALBE, Egizu.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. *Animabasauri*.
43. MUSIKA. *Getxo Jazz 2010*. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. *Txo!* haur bilduma. Erreseinak.
45. KIROLAK. Getxoko Udaleko kirol web gunea.
46. ELKARRIZKETA. Gotzon Elortza.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. *Taberna Unai*, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Gorlizko Urezarantza Ikastola, 1978.
54. AITORMENAK. Oscar Terol.

Azala: Hodei Torres

www.ukaldizkaria.biz



46 Gotzon Elortza

Elk. kulturala

Euskarazko lehen filmak egin zituen 60ko urteetan, eta kartzela ezagutu; Udalak omenduko du.



11 G. Barba eta J. Perales



54 Oscar Terol

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*



1.000€-ko
deskontua
aukerako edozein
ibilgailu
erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT
OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak baim. Ikusaraziko eta eskaintza bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea urtean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberriri.com



Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Nuklearra

Eztabaida berpiztu gurean da. Zeinek esango ote zuen orain dela hamar urte...baina bai. Energia nuklearraren debatea barriro ere zabaldu da gure gizartean. Eta ez dago txarto. Aldaketa klimatikoak gero eta energia garbiagoa topatzen eta garatzen behartzen gaitu. Behintzat, atmosferara CO2a isurtzen ez duena. Eta horretan, zentral nuklearrak abantaila itzelaz aurkezten dira. Alde batetik ez dutelako gas pozointsurik airera botatzen. Beste alde batetik, uranioa erabiltzen duelako, gaur egun, oso ugari den lehengai.

Bianca Jaggerrek, giza eskubide eta garapenerako erakunde baten presidentek, orain dela urte bete Euskadin esan zuenaz gogoratzen naz: 'Nuclear power is not a sustainable energy. It's not the solution to the climate change'. Beharbada arrazioa dauka. Baina bestetik, goi mailako zientzialariek esaten dutenez ere oroitzen naiz: 'nuklear hondakinen arazoa -energia horren arazorik larriena- konpontzeko bidean dago'. Eztabaida dezagun, bada.

Iritzia

Martxoan Getxoko etxeetan banatutako Getxoberri faltsuaren inguruko hausnarketa egin du Arantza Gutierrez EHUko irakasleak.

Getxoberri faltsuaz

"Udalak hiritarrei LZP-ri buruz galdegingo die" zioen martxoaren 18an postontzian topatu genuen Getxoberriren izenburu nagusiak. Gezurrezko izenburua, udal aldizkari faltsu batean; baina horrek, esandakoari garrantzirik kendu beharrean,

«Modu oso sortzailez plazaratu zuten udalaren hiri-politikaren aurkako salaketa»

albistearen indarra areagotu du. Zergatik, baina? Beharbada getxoztarrak horrelako barri baten (hobeto esanda, horrelako galdetegi baten) zain daudelako?

Azken urteotan, auzotarrak argi eta garbi adierazten ari dira ez dutela diseinatzen ari den Getxo gura: Antzokiaren egitasmo erraldoia, Punta Begoñan eraiki gura duten luxuzko hotela, Gobela eta Faduraeren ondoan uholde-arriskuan dauden zoruetao eraikuntza basatia, Andra Mariko hirigintza, e.a, udalak bultzatutako proiektuak dira, askotan bertan bizi diren auzotarren kontra. Eta eurek ez dute besterik eskatzen: zuzenean haien bizi-kalitatean eragiten

duten erabaki horietan guztietan entzunak izatea, galdetuak. Horregatik ez zen inor axolagabe lotu izenburua irakurtzean.

Horietaz gainera modu oso sortzailez plazaratu zuten udalaren hiri-politikaren aurkako salaketa, komunikazio-gerrillari buruzko eskuliburuan agertutako salaketa-teknika klasiko batean oinarrituta: "gertaera faltsu bat asmatu benetako gertakizunak sortzeko".

Horretarako, lehenengo pausoa sinesgarria den komunikabidea aukeratzea da, eta Getxoberri beti izan da udalaren propaganda tresnarik fidelena; beraz, inork ez luke zalantzan jarriko irakurritakoa udal albistea zenik (horretan baitatza Getxoberriren sinesgarritasuna, udal ahotsa izatean, alegia).

Bigarren pausoa honakoa zen: getxoztarrak axolagabe utziko ez lituzkeen albistea asmatzea: azkenik, udalak herriaren diseinua egin baino lehen, bizilagunen iritzia eskatuko luke, eta gainera, horren arabera jokatzeko prest agertzen zen.

Hirugarren pausoa, ondorioz sortutako gertakizun barria dugu; honako honetan zentzu bitan: alde batetik, LZP-ren inguruko kezka (benetako gertakizuna) airean geratu da barriz ere, eta horregaz batera, getxoztarrak gura dugun udalerriaren auzia. Eta, beste aldetik, udal agintariak beraiek izandako erreakzioa albistea gezurtatzen eta akzio judizialak iragartzen. Horrek agerian utzi du Getxoko udal agintarien jarrera: dena herriarentzat baina herria barik, gerta bailiteke azken hau ados ez egotea.

Amaitzeko esan, gainera, Getxoberri faltsuaren agerpena bera albiste bihurtu dela, eta benetakoak ontzi urdinean amaitu ohi duen bezala, gezurrezkoa eskuz esku ibili dela, askok gorde ere egin dugu, gutxitan baikara kontra-informazioaren hain adibide argi, zorrotz eta irudimentsuaren lekuko.

Arantza Gutierrez Paz
(EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea)

gu geu**Udabarrian sarea josten**

Udabarria heldu da gurera, loreak kaleak eta zelaia kolorez alaitzen eta kotxeak lore-hautsez zikinduta. Ez da natura garai honetan irudi eta sentsazio ederrak oparitzen digun bakarra. Kultur sortzaileak ere, are emankorrago egon ohi dira garai honetan; tenperaturak epeltzen diren heinean, bertsolariak, antzerkilariak eta bestelako artista eta txerpolariak antzokietako lau hormak apurtu eta kale eta plazetara urteten dira.

Getxon egitasmo ederra erditu dute herriko hainbat elkartek. Kirola, feminismoa, kultura, gazteria, komunikazioa... esparru ezberdinetako lagunak batu gara Bizarra Lepoan elkartearen gidaritzapean. Aitzakia, ederra: euskalgintzako hainbat elkarte (Algortako Bertsolari Eskolak, Egizu Getxo Euskaldun Elkarteak, Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak e.a.) urtebetetze borobila ospatu behar dute aurten. Helburua, argia: Getxoko euskaldun eta euskaltzaleen topalekua izango den sarea jostea. Eta sarea behar den moduan josten hasteko, elkarte guzti horien laguntzaz prestatutako egitaraua. Apirilaren 9an hasi ziren ekintzak eta 24an amaiera borobila emango zaie bazkari erraldoi bategaz (gonbidatuta zaudete!). 173. zenbaki honetan, UKtik ekimenari egin gura izan diogun ekarpena daukazue, argazkiz eta berbez egindako oparitxoak. Baina, jakin, behin sarea josita herriko euskaldunak arrantzan jarraituko dugula!

UK-ko lantaldea

[irudia]



GETXO. 2010EKO MARTXOAREN 30A

Munduaren akabera badatorrela...! Horrelaxe gertatu zen Aste Santuaren atarian. Udaberria heltzean berreskuratu genuen eguzkia, negu luzearen ondoren. Egia baino, irrika izan omen zen, ordea, irudi hau ikusi besterik ez dago. Galeatik hartura dago, suma daitezke Portugalere eta Santurtziko portua Abratik bestaldera. Eta gainean, hodei iluna; zerua gainera datorkigula ematen du; ikusgarria benetan. Izan ere, horrela gertatzen da mundu honetan; horixe da pobreaken zoria: oporrak iritsi eta curia. O / Argazkia: Hodei Torres

EGIN KLIK

berria!

uk aldizkariari



www.ukaldizkaria.biz

- Azken zenbakia
- Argazkiak
- Artxiboa
- UK ekoizpenak
- UKagenda

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

[lehen]



INDALECO OLAGÜREN

[orain]



ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / URDULIZKO ELIZA, 1961

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > harrizko maitaleak



2010eko otsaila, Erandio

Testua: **Arkaitz Gomez** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Agur sagar beltzaran*

Kopa edo bi aurpegi begira parez pare, maitale errugabeak enparantza ondare. Estatuak izan arren euren bihotzen jabe maitasunaren taupada bihurtu da atsekabe; inoiz elkar ukitzeko esperantzarik gabe desirak zigilatzeke moxua behar jare. (bis)

Hiritar aruntarengan sortzen du ikusmira, desiraren sorkuntzari zor zaiolako mira. Lehen moxuaren zirrarak gogora zilegi da: batan txiklela ahoan ta sakonki begira, bihotza ateratzear hurbilduz aurpegira... kate begi une hartan loturik bizi dira. (bis)

Ibiltzen bere aurretik bi daude harriturik, bi maitaleentzat ordea ez da beste mundurik. Nahiz (e)ta ipurdia daukaten harrian izozturik haurrak egunen baten harria bihurturik, gizon gisan ezin esan daudelako muturik harri bihurtu izanaz ez daude damaturik. (bis)

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaintza

Luberrri Basolanak, SL
Axe ibalortza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lurtsotzko organitze lanak eta erroto lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berbelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaztoak tratatzea.
- Inausketak
Hasteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaioa apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

euskara > egonaldiak familia euskaldunetan



Informazioa gehiago: www.egonaldiak.net

Euskara ikasi, hobetu guran nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilenak, aukera parebakoa izango du horretarako. Izan ere, familia euskaldun batean hamabost egun, hilabete bat edo bi pasatzeko ekimena antolatu dute Bilboko Ulibarri eta Donostiako Urrats euskaltegiek: egonaldiak familia euskaldunetan. Hartara, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko parada ere egongo da. Maiatzaren 3tik 28ra dago zabalik izen-ematea 944 16 24 72 zenbakira deituz. Era berean, ikasleak hartu gura dituen familiek ere izena eman dezake, baina apirilaren 23a baino lehen, eta 943 47 44 47 telefonoan. Prezioak egonaldiaren luzeraren arabera izango dira. Gainera, hainbat baldintza bete beharko ditu bai ikasleak, bai familiak. Baina horretaz guztiaz informazio gehiago gura duenak interneten dauka, www.egonaldiak.net gunean. o

getxo > Frank Kalero izango da komisario aurten Getxophoto jaialdian



Irailaren 2tik urriaren 3ra egingo dute Getxophoto, laugarrenez

Komisario barria du Getxophoto jaialdiak laugarren ediziorako: Frank Kalerok hortaz, Alejandro Castelloteran lekukoa hartuko du. Argazkiak kalera ateratzen ditu jaialdiak, eta aurten, irailaren 2tik urriaren 3ra arte luzatuko da. Jarduera astea, barriz, irailaren 2tik 5era izango da. Kalero komisario barria Pompeu Fabra Unibertsitatean lizentziatu zen Ikusentzunezko Komunikazioan eta Argazkigintza Dokumentalean Masterra egin zuen *International Center of Photography-n* (New York). *OjodePez* aldizkariko sortzaile eta zuzendari izan da. 2009an *The world according to arte* aldizkaria sortu zuen Berlinen. Gaur egun Asiako Punctum izeneko fotografia aldizkaria abian jartzen dihardu. Berlin eta New Delhi artean bizi da. o

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

getxo > errausketa laberik ezingo da ezari hiri-lurzoruan



Helburu hori gauzatzeko, HAPOn aldaketa zehatzak bultzatuko ditu Osoko Bilkurak

Udalerriko hiri-lurzoruan ezingo da errausketa laberik jarri, azken Osoko Bilkurak erabaki zuenez. Horretarako, Hiri-Antolamendurako Plan Nagusian aldaketa zehatzak bultzatzea adostu zuen, baita Aldapa gunean eraiki gura duten beilatokira Ollarretxe kaletik sartzeko bide barria egitea eta oinezkoentzako egokitzea ere. Gainera, beilatokiaren ahalik eta ikuskapenik zorrotzena gauzatu du Udalak. Mozio horien alde bozkatu zuten Osoko Bilkura osatzen duten alderdi guztiek, PPK izan ezik; azken hori abstenitu egin zen. Mozioakaz batera, hileta-zerbitzuak eta antzekoak arautuko lituzkeen ordenantza onartzeko eztabaida Udalbatzara eroan edo ez aztertuko dute. Erabaki hori aho batez hartu zuten. Osoko Bilkura berean erabaki zuten Galea inguruko 50.000 metro koadroko lursaila (Gotorlekuaren eta Hilerriaren artekoa) nahitaez desjabetzeko txostena zabaltzea, *“herritarrek eremu hori erabiltzen eta gozatzeko segü dezaten”*. ○

antzinako mapak > bilduma kaleratu du Bizkaiko Aldundiak



Euskal Herria museoa: Kartografia bilduma izena du liburuak

Gernika-Lumoko Euskal Herria museoko kartografia aretoan ikus daitezke hainbat mapa eta plano zahar; Bizkaiko Foru artxibotik eroan dituzte. Lehen mapak irakurketa ugari izan zitzaizkiren, ez zuten soilik geografia adierazten; iritzia emateko ere balio zuten, baita politika egiteko edota jendarteari buruzko informazioa lortzeko ere. Bada, Aldundiak liburuak kaleratu du, herritarrak jabe daitezkeen dokumentuon balioaz: *Euskal Herria museoa: Kartografia bilduma*. Lana 66 mapak eta planok osatzen dute, Bilbo, Baiona edo Iruñekoak tarteko; baita Gipuzkoako lehen mapa inprimatua eta Nafarroako erresumako sei merindadeak erakusten dituen dokumentua ere, besteren artean. Liburuak CD-ROM batek osatzen du eta 2.000 aleko edizioa kaleratu dute. ○

[erretratua]



“Gazteei etxeko interneta, lonjak eta PlayStationa kendu eta kalera aterako nituzke”

G. Barba eta J. Perales > Eztabaida Gune Antiautoritarioa

Herriari kontrainformazioa eta gizarte borroken inguruko informazioa eskaintzea. Hori da Algortan dagoen Eztabaida Gune Antiautoritarioko, Jorge Perales kideak buruan zuena 2008an proiektua martxan jarri zuenean: *“Urbe Kostan ez genuen horrelako informazioa eskaintzen zigun gunerik eta geuk sortzea erabaki genuen”*. Gorka Barba aurrerago batu zen taldera. Proiektu indartsua sortu dute: *“Urte batzuk borrokan eman ostean, oihartzuna izango zuen zerbait egin gura genuen, erreferentea sortu”*. Formakuntza politikoak borrokak aberasten dituela uste dute Eztabaidakoek; formakuntza horretarako lagungarriak dira dendan dituzten liburuak: *“Guk saltzen ditugu, bakoitzaren esku dago horiek zelan erabili; irakurzaletasunerako jakin-mina sortzea lortzen dugu behintzat”*. Malenkoniak begiratzen diote gizarte mugimenduari eta, batez ere, gazteei: *“Beti esaten da aurreko garaiak hobekak izan direla, baina mugimendua egon badago”*. Gazteria aktibatzeke argi daukate zer dagoen soberan: *“PlayStationak, lonjak eta etxeko interneta kenduko nizkieke eta kalera aterako nituzke gazte guztiak”*. Hala ere, Eztabaida ez da gazteentzako gunea soilik: *“Denetarik jendea hurbiltzen da”*. Denbora asko eskatzen du horrelako proiektua aurrera ateratzeko: *“Eguneroko militantzia da”*. Hala ere, aurrera egiteko gogoz daude eta laster liburu bi editatuko dituzte. ○ Argazkia: **Hodei Torres** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Bost izarretako Punta Begoña

Aldundiaren txosten batek, Punta Begoñako galerietan Udalak eta Barcelok egin gura duten **bost izarretako** hotelaren proiektua **bideragarria** dela baieztatu du

Punta Begoñako galerietan bost izarretako hotela eraikitzekeo proiektuak aurrera darrai bere izapidetze arruntagaz. Izan ere, Udalak martxoan jakinarazi zuenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren txosten batek proiektuaren bideragarritasuna bermatzen du, nahiz eta, aldaketa batzuk egin behar direla ezartzen duen. Herriko zenbait elkarte, ez daude ados egitasmoagaz.

2007ko ekainean egin zuten Gobernu Taldeak eta Barcelo enpresak Punta Begoñako galerietan luxuzko hotela eraikitzekeo proiektua martxan jartzeko lehen bilera. Bilera horretan, ondorio bi atera zituzten: Galerien kontserbazioaren egoera aztertu behar zela eta hasierako proiektuari aldaketak egin behar zitzaizkiola. Hori dela eta, Barcelok galerien gaineko txostena Bizkaiko Foru Aldundiari eman eta Hiri Antolaketarako Plangintza (HAPO) orokorra aldatzeko espedientea zabaltzeko zuten azaroan, urte bete beranduago onartu zena betiko.

Joan den martxoan, Aldundiaren Kultura eta Ondare Sailaren txosten batek, Punta Begoñako galerietan bost izarretako hotela egiteko proiektua bideragarria dela baieztatu zuen. Hala ere, aurkeztutako proiektuari aldaketa batzuk egin behar zitzaizkiola aurreratu zuten, aurrealdeari dagokion atalean batez ere. "Pertsonak dabiltzan lekutik aurrerantzean ere egin ahal izatea, berreraikitzea fase-



Urtarrilean hesitu zituzten Punta Begoñako galeriak

tan egitea eta egungo geometria mantentzea" dira zehaztutako aldaketak; horrez gain, Barcelori, erabiliko dituen materialetan eta hotelak izango duen kolorearen estetikan zehaztasun gehiago ematea eskatu dio Aldundiak.

«Pertsonak dabiltzan lekutik aurrerantzean ere egin ahal izatea, berreraikitzea fasean egitea eta egungo geometria mantentzea eskatu du Aldundiak»

Imanol Landa Getxoko Alkateak, pozik dago proiektuagaz eta herriari "onura baino ez diola ekarriko" uste du; "Getxon enblematikoa den lekua birgaitu eta lanpostuak eta oparotasuna sortuko"

duela iritzi dio Landak.

Beste aldean, Getxon Bizi Auzo Elkarteak, herriko beste zazpi auzo eta kultur elkartegaz batera, Galerietan hotela eraikitzearen proiektuaren aurrean desadostasuna agertu eta Foru Aldundiko Kultura Zuzendariari eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendariari idatzia igorri zioten otsailan. "Perimetroa hesitu izanak biziki kezkatzen du" Getxon Bizi Auzo Elkarteak; gainera, "Udalaren zaintza eta arduraz egatik galeriak hondatzen ari direla" eta "Galerien jatorrizko balioa eta izaera suntsituko lituzkeen hoteleko proiektuagaz Udala tematuta" dagoela uste dute. Jaurlaritzari eta Aldundiari "etorkizunaren neurririk hartuko duten" eta "eraikinararen egoeraren barri duten" galdetu diete elkarteek. ○

Galeako lurak desjabetu

gura ditu Udalak, herritarrek goza ditzaten



Gotorlekua eta Kanposantuaren arteko lursailak desjabetu gura dituzte

Martxoko udalbatzan aho batez onartu zuen Udal Gobernu taldeak, Gotorlekua eta Hilerriaren arteko Galeako lursailak nahitaz desjabetzeko espedientea zabaltzea. Historikoki, gutxienez azken mendean, lur horiei udal erabilera eman zaie; hala ere, Epaitegi Gorenak joan den urteko irailean ebatzi zuen 50.000 metro koadroko lursaila jabego pribatukoa zela. Imanol Landa alkateak epaia urten eta gutxira adierazi zuen lur horiei erabilera publikoa emateko bere eskuetan zegoen guztia egingo zuela.

Aipatutako lurak, gunee libre eta erabilera publikokoak bezala izendatuta daude Udal Plangintzaren barruan eta urbanizaezinak dira. Udaletik, etorkizunean, orain arte izan duten erabilera

emateko asmoa dutela aurreratu dute, Bizkaiko aisi-gune garrantzitsuenetakoak baita. Horrez gain, argi utzi gura izan dute, lursail zatiak ez duela eraginik izango ez Galeako pasealekuan ezta Itxas Argia taldeak antolatutako paella txapelketan ere. Pasealekuaren eta itsas labararen artean dagoen lursaila da, kanposantuaren parean eta Gotorlekura heldu baino lehen dagoen lur eremua.

Nahitazeko desjabetzearen espedientea zabaltzea onartu arren, Landak jabeak akordio ekonomiko batera heltzen saiatuko direla adierazi du, baldin eta Udalarentzat bideragarria den akordioa onartzen badute: "Elkarrizketan ari gara eurekaz". Kopurua zehaztu ez duten arren, badago lur horien balioa zehazten duen aurre tasazioa. ○

21.066 EURO EMAKUME ELKARTEENTZAKO

Apirilaren 22an amaituko da emakumeen parte-hartze politiko eta soziala errazten duten eta herrian berdintasuna bultzatzen laguntzen duten proiektuak eta programak aurrera ateratzeko Udalak ematen dituen diru laguntzak eskatzeko epea. Aurten 21.066 euro banatuko dituzte eskatzaileen artean. Diru irabazteko asmorik bako erakundeek eta egoitza soziala Getxon duten nortasun juridikodun Emakume elkarteek eskatu ahal izango dituzte laguntzak; baita nortasun juridikoa ez duten, baina egoitza soziala Getxon duten pertsona fisiko edo juridikoek ere. Eskaera, Udaletxea eta Herritarren Arreta Bulegoetan aurkeztu behar da.

20 HILABETE ANTZOKIKO APARKALEKURAKO

San Nikolasako lurrazpiko aparkalekua eraikitzekeo lanen 2. fasea onartu du Gobernu Batzordeak. Auzokoentzako 105 plazatako parkinga eta ikuskizunak muntatzeko eta kentzeko beste bat egingo dituzte bigarren fase honetan. Proiektuaren lizitazioarako ezarritako diru-kopurua 3.611.850 eurokoa da eta lanak egiteko epemuga 20 hilabetekoa; lanak udaldian hasiko direla aurreikusitako dute. Fase hau amaitutakoan, eraikina altxatzen hasiko dira; ondoren, plaza eta ingurua urbanizatuko dituzte eta, azkenik, eraikineko instalazioak jarriko dituzte. Getxo Antzokia eta Musika Eskola 2013an inauguratuko dira.

GIZARTE LARRIALDIEN LAGUNTZAK ONARTUTA

Maiatza hasieran amaituko dute Algortako Telletxe kalean antzinako trenaren barreraren paretik Bidezabalgo Borobiako plazara joango den bidegorria. Proiektuaren arabera, oinezkoentzako aldea hobetuko da eta 470 metro luzerako bidegorria egingo da. Espaloiei metro biko zabalera emango diete. Lan hauek Gobernu Taldeak udalerriko hainbat tokitan bidegorri tarte barriak egiteko bultzatutako jardueren harira datoz.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Bagastikoetxe Industrialea
Etxalde 2 - Pabio 11
48310 Gortz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Iñaki eta Aitor Muñoz > *Ailanto* moda diseinatzaileak

“Uniformetasunari ihes egiten dion emakumea jantzi gura dugu”



Aitor eta Iñaki Muñoz diseinatzaileak

Ez da erraza modaren munduan bide egitea. 1992. urtean Bartzelonan hasi ziren Iñaki eta Aitor Muñoz anaia algortarrak AILANTO markagaz. Gaur egun, munduko ibiltoki ezagunenetan ikus daitezke euren diseinuak eta hainbat moda sari irabazi dituzte. Otsailean Madrileko Cibeles Fashion Week ospetsuan 2010-2011 neguko bilduma aurkeztu zuten; oso pozik daude prentsa espezializatuak zein kritikak emanda-ko erantzunagaz. Denda propioa zabaldu barri dute.

—Zelakoak izan ziren zuen diseinatzaile ibilbidearen hastapenak?

—Arte Ederrak egin genuen Bartzelonan; Iñakik diseinua ikasi zuen arrastietan. Palau de la Musicatik hurbil zegoen bulego batean hasi ginen, bilduma xumeak egiten eta gure ideietan sinetsi zuten bezero gutxi batzuek. Txikitatik izan dugu arterako grina; Algortako pintura akademia batean ikasi genuen.

—Sariak, ibiltoki ezagunak... non dago zuen arrakastaren sekretua?

—Oraindino ezin dugu esan arrakasta

izan dugunik; agian gure sekretua berezko estiloa izatean eta horri leialtasuna adieraztean datza.

—Definitu zuen moda.

—Dotoretasun soft-a, estanpatu propioak eta kutsu retroa.

—Zer nolako emakumea jantzen duzue?

—Bere burua Ailanto estiloagaz identifikatzen duen emakumea, uniformetasunetik ihesi egin gura duena.

—Emakumeentzako arropa diseinatzeaz gain, beste zenbait esparrutan mugitu zarete, ezta?

—Beste marka batzuek elkarlanean jardutea gustuko dugu. Moda ez diren beste diziplina batzuetan behar egiteak ikuspegi barriak ematen dizkigu eta gure irudimena elikatzen du.

—Dena asmatuta al dago?

—Egiten den gehiena XX. hamarkadatan egindakoaren berraztertzea da; hala ere, zenbait sortzaile, arkitekto, paisaiapintore edota diseinatzaile industrialek nortasun propioa duten objektuak eta proiektuak sortu dituzte.

—Krisi garaian, zaila da modaren munduan aurrera egitea?

«Gure lana oso lotuta dago Euskal Herriko paisaia, klima eta kulturagaz»

—Bai, zaila da; baina, aldi berean, gauza asko zailtzen jartzeko eta hoberen egiten dugunean zentratzeko garaia ere bada. Pariseko azken azokan, nazioarteko merkaturia bere onera bueltatzen ari dela nabaritu genuen, aurreko hiru edizioak konparatuz gero behintzat.

—Proiekturen bat duzue esku artean?

—Martxoan amaieran lehenengo AILANTO denda zabalduko dugu; gure bilduma osorik aurkitu ahal izango da bertan. Horrez gain, beste marka batzuek egiten ditugun objektuak jarriko ditugu salgai: SARGADELOren lorontziak, Santa&COLEren lanparak, HAZELen zapatat eta zorroak e.a.

—Urteak joan dira Algortatik joan zinetenetik; faltan somatzen duzue?

—Bilbon jaio ginen eta 14 urteagaz Algortara joan ginen bizitzera. Bartzelonan urte asko eman baditugu ere, euskaldunak sentitzen gara %100ean; gure lana oso lotuta dago Euskal Herriko paisaia, klima eta kulturagaz. ○

Liburu artean plazan

Algortako Geltokia plazan **Liburu Azoka** egingo da **apirilaren 22tik 25era** bitartean



Udal liburutegiak eta 12 liburu-dendak hartuko dute parte aurtengo azokan

Algortako Geltokia Plazak Liburu Azoka hartuko du apirilaren 22tik 25era. Aurten dinosauroen garaia da azoka girotzeko aukeraturako gaia. Udal liburutegiak eta herriko 12 liburu dendak parte hartuko dute azokan, eta liburuak %10eko deskontua izango dute. Azokak dirauen egunetan, Getxoko antzinako argazkien erakusketa ikusteko aukera egongo da.

Eguenean, arrastiko 17:00etan zabalduko ditu ateak azokak. Apika taldeak, Monda Lironda pailazo euskaldunak ekarriko ditu 17:30ean 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Horrez gain, maia-

tzaren 8an eta 9an Gustavo Iduriagaren gidaritzapean egingo diren literatura txangoetan izena emateko epea zabalduko da.

Barikuan eta zapatuan goizez eta arratsalde zabalduko dute azoka. 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunean, jendaurreko haur irakurketa egongo da 10:00etatik aurrera Getxoko ikasleen eskutik. 20:30ean, Koldo Ameztok eta Pantxix Bidartek, ipuin eta musika ikuskizuna eskainiko dute. 24an aldiz, herriko idazleak liburuak sinatzen egongo dira, eta arrastian, ipuin kontalaria egongo da umeentzat. ○

ALGORTAKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Uztailaren 29tik abuztuaren 1era bitartean ospatuko dira aurten Algortako San Inazio jaiak. Dagoeneko zabalik dago jaiak iragaritzeko kartel lehiaketan parte hartzeko epea. Gaia libre izango da eta edonork parte har dezake; egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du eta kartelean ondoko hiru leloak agertu beharko dira: “*Algortako San Inazioak 2010. Uztailak 29-Abuztuak 1. Jaietan ere euskaraz!*”. 70x50 zentimetrokoa izan behar da kartela eta euskarri gogorrean edo paper gainean aurkeztu behar da. Amezti kaleko 3. zenbakian dagoen Eztabaida Gune Antiautoritarioan aurkeztu behar da lana maiatzaren 17a baino lehen.

SAHARAR UMEAK HARTZEKO IZEN-EMATEA

Sahararen aldeko Getxoko ATFAL elkarteak, Getxoko Udalagaz elkarlanean, udan saharar ume bat etxean hartzeko *Oporrak bakean* kanpaina abiarazi dute. Kanpaina honen helburuak umeen premiak asetzea, medikuzterketa egokia eskaintzea, kultura truketzea eta sahararrek pairatzen duten egoeraz herritarrek sentsibilizatzea dira. ATFAL elkartetik familiak animatu gura dituzte umeak hartzera, umei uda baldintza hobeean igarotzeko aukera emateaz gain, familientzat ere esperientzia oso aberasgarria delako. Izena emateko epea maiatzaren 20a arte egongo da zabalik 658 751 359 telefonoan eta oporrrakbakean@gmail.com helbidean.

HERRIAN ZEHAR BISITA GIDATU ANTZEZTUAK

Urtarrilaren 31 arte, *Getxo bisitatu eta gozatu* gidatutako eta antzeztutako bisitaldian parte hartu ahal izango da, zapatoro eta domekara. Herriko ondare arkitektonikoa, Portu Zaharra eta Areetako auzoa izango dira bisitetako protagonistak. Gidatutako bisitaldien prezioa 3 eurokoa izango da eta antzeztutakoena 6 eurokoa. Ez da alde aurretik txanda eskatu behar eta Turismo Bulegoetan lor daitezke informazioa.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
TÉ. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Benancio Aurrekoetxea Beitia > Sutxus-barri baserikoa eta mahastizaina

“Gaztetan etxerako egiten genuen txakolina, baina orduan ez zegoen enologorik eta horrelakorik”

Orain Sutxus-Barri baserrian bizi da baina Sutxus-Aurrekoan jaio zen duela ia 80 urte Benancio Aurrekoetxea Beitia. Bizitza osoan landu du lurra eta hazi ditu animaliak. Gaur egun mahatsa hazten du Itsas-Mendi txakolindegirako.



Aurrekoetxearen mahastitik Abra osoa ikusten da, Serantes menditik Barakaldora

—Txakolina egiten dute Itsas-Mendi upategian Leioako mahatsagaz, nolatan hasi zinen mahastizain?

—Zazpi izena daraman txakolina egiten dute bertako mahatsagaz, kiantza txakolina da, berezia. Upategiko zazpigarren tankean ekoizten hasi zelako dauka izena. 2001ean landatu genuen hemen mahatsa. Ordura arte madariak eta sagarondoak neuzkan, baina gaixo jarri ziren madariak eta kendu behar izan nituen. Lagun batek eman zidan ideia mahatsa jartzeko, eta nik Itsas-Mendikoak ezagutzen nituen, animatu nintzen. Lurraren erdia alokatu nien eta beste erdia neuk lantzen dut, ondoren erosten didate mahatsa. Beno, orain eurek batzen dute nirea ere. Baina zaindu, nik zaintzen dut. Gustura nabil.

—Noiz batzen duzue mahatsa?

—Irailaren azken astean edo urriaren lehenengoan izaten da, mahatsak 12 edo

13 gradu alkohol lortu duenean. Gero, abendua aldera inausten dugu, hurrengo urterako prestatzeko.

—Gainera, hainbat sari irabazi dute bertako mahatsagaz.

—Zerbait ondo egiten dugunaren seinale.

—Baina inguruan ez da mahastirik ikusten.

—Ni gaztea nintzenez bai, ordea. Auzotar guztiok batera biltzen genuen

eta etxerako egiten genuen txakolina, baina gogorragoa zen. Orduan ez zegoen enologorik, eta horrelakorik.

—Beti lan egin duzu baserrian, ezta?

—Beti. Lehen bagenezkan idiak eta astoak ere. Makina bat sari irabazita daukat probetan, baina orain, ez dago ia animaliarik inguruan. Laborantzak ere gutxi, ez zelako ekoiztutakoa saltzen, eta jendea joaten hasi zen beste gauzetan lan egitera. ○

Gazte Eguna, apirilak 24

Gazte sormena bultzatuko du; **olinpiadak, bazkaria, kontzertuak...** denerako tartea



Gazte asko bildu zen iazko edizioko herri bazkarian

Zure sormena alternatibarik onena lelopean ospatuko dute zazpigarren Gazte Eguna, apirilaren 24an. Txakurzulo Gazte Asanbladak antolatu eta kudeatuko du. Ohi legez, “*borrokarako*” ekimena ere izango da, ez jai egun soila: “*Gazteok gure aisialdia sortzeko gai garela erakutsi, eta aldi berean, dauzkagun problematikak eta arazoak kaleratzeko*”.

Gazteek egina eta gazteentzako eguna izango da, eurek kudeatutakoa eta “*inolako laguntzarik barik aurrera aterako dena*”, argitu dute Gazte Asanbladakoek. Izan ere, “*guk bakarrik dakigu zer garen, zer gura dugun eta nola egin gura dugun*”. Herriko gazte

“*guztiak*” deitu dituzte parte hartzera, eta egongo da zer eginik.

Goizean hasiko dira ekimenak. Herri azoka egongo da 11:30etik aurrera: txalaparta, sagardo kupelak, pintxoak... Eta “*giro aparta*!”. Goizean ere egingo dituzte koadrilen arteko olinpiada eta *aerobitoia*. Beraz, has zaitezke giharrak berotzen eta entrenatzen.

Bazkari herrikoia ostean ere, siestarako aitzakiarik ez, bertsolariek eta raperoek hartuko dute mikroa. Ondoren abiatuko da poteoa, batukadaren laguntzagaz, eta gauean izango dira kontzertuak; Amargor, Siroka eta talde sorpresa jarriko dituzte denak dantzan taula gainetik. ○

ONDIZKO KOOPERATIBAN IZENA EMAN DAITEKE

Ondizen egingo dituzten etxebizitzaren adjudikaziorako bazkideak lortzeko prozedura zabaldu du ONDIZ S. COOP. erakundeak. Gune horretan babes ofizialeko 102 etxebizitzatara multzoa eraikitzeko sustatzailea da eta leioztarrak bakarrik izan daitezke bazkide. Sabino Arana etorbideko 12.ean (baxua) daukan helbide sozialera eroan behar du dokumentazioa bazkide izan gura duenak. Lehen promozio honetan 102 etxebizitza egingo dituzte, baina amaitean, tasatutako 57 etxebizitza eraikiko dituzte zona berean, leioztarrentzako horiek ere. Guztiak esleitu dituzte jabetzan.

336.000 EURO KULTUR ETA KIROL LAGUNTZETAN

Udalak 336.000 euro banatu du aurten kirol eta kultur arloko 29 talderen artean, dirulaguntzetan. Iazko kopuru bera da, baina talde bakoitzari eman kopuruan aldaketak egon dira, Udalak dioenez, “*egiten dituzten ekimenen eta euren beharren arabera*”. Besteak beste, Leioa Kirol Elkartek 70.980 euro jaso du, Leioako Emakumeak futbol klubak 25.350, Lamiña Kultur Elkartek eta Auzotarrok elkarteak 23.445, eta Musika Bandak 11.113. Helduen alde eta Epi y Blas elkarteek, eta Gure Ohiturak eta Txikiak dantza taldeek ere jaso dituzte laguntzak.

UMEEN HEZIKETARAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA

Familiantzako doako orientazio zerbitzua abiatuko du Udal Hezkuntza Arloak apirilaren 21ean, “*personalizatua eta konfidentziala, seme-alaben hazkuntza eta heziketan sortu arazoetan laguntzeko asmoz*”. Aholkularitza-zerbitzua eskainiko dute horretarako. Hainbat bide egongo da kontsultatarako, euskaraz zein gazteleraz.

Informazio gehiago: www.leioa.eu,
www.etxadi.org edo 94-405 15 49

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 400 41 15 Fax: 94 400 41 63

BASTARTEA
URDULIZ
Telefono: 946 761 128

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORITZ KLINIKAK
Arantza Etxebarria

- Odontologia oskorra
- Otorrinlari
- Periodontia
- PADI

Bidebati 27. beheko solairua
ALGORTA
94 433 76 96

[erandio]

Eduarne Martinez > margolaria

“Naturaren formak konbinatzen ditut hirien paisaiakaz, forma geologikoak irudikatzeneko”

Arte Ederrak ikasi du Eduarne Martinezek eta beti margotu izan du. Bere lanak erakustera dator Erandiora, bertan bizi da eta. Irudimenak sortu paisaiak egin ditu Aka erakusketan; azken bi urteotako lanak dira eta marra dute protagonista. Apirilaren 23tik aurrera ikusi ahalko dituzu Astrabuduko kultur etxean.

—Zer ikusiko dugu erakusketan?
—Mihise gainean margotutako koadroak dira. Teknika akrilikoa erabili dut, eta horietako batzuetan, papera ere erabili dut. Haren gainean *pilot* boligrafoak marraztu ditut. *Aka* izena jarri diot erakusketari, haria irudikatuz, marra baita protagonista. Bi urteotan egindako lanak erakutsiko ditut, eta saltzen saiatu.

—Zein da gaia?
—Forma geologikoei erreparatu diet, landareei... naturaren formei, eta konbinatu ditut hirien paisaiakaz, forma geologikoak irudikatzeneko. Gustuko dut formen arteko harremanak bilatzea. Zerbait zehatza irudikatzen dut lehenbizi, eta horretan oinarrituta, abstrakzioa jotzen dut. Harreman hori gustuko dut, izan ere, konparazioak eta metaforak sortzen dira joko horretatik.
—Zeintzuk dituzu inspirazio iturriak?



Bere margoen erakusketak egingo du, Josu Murueta kultur etxean, apirilaren 23tik maiatzaren 7ra

—Oso desberdinak dira. Gustuko dut naturari begiratzea, baina bestalde, zientzia fikziozko filmak gustuko ditut, munduan gertatzen diren gauzak ere interesatuta nago, jendartean gertatzen diren gauzak... Eta horiek denak islatzen ditut koadroetan.
—Baina margotzetik bizi zara?
—Uff... Jende oso gutxi dedikatzen da horretara bakarrik. Sariren bat eman didate, baina ez naiz horretaz bizi. Diseinatzaile grafiko gisa lan egiten dut.

—Margotzeko beste era bat da hori?
—Pintura egiteko beste era bat da, batzuetan ordenagailua erabiltzen dut konposizioak egiteko, egindako marrazkiak eskaneatzen ditut... Diseinuan interesatuta nago eta batzuetan isla daitete margoetan.
—Etokizunerako zer asmo daukazu?
—Badaukat gogoia marrazki hauek zerbait desberdina egiteko, baina oraingo ez daukat ezer zehaztuta. Beste teknika batzuk lantzeko gogoia daukat. ○

Ondarean folk jaialdia

Kantabriako eta Kataluniako taldeak ere arituko dira **apirilaren 17an**, Altzaga auzoan



Kalejira, erromeria eta folk kontzertua antolatu dituzte, egun osoko egitarauaren baitan

Laugarren edizioa du aurtengoak Ondarean folk jaialdiak. Altzaga auzoan izango da, ohiko legez, apirilaren 17an, zapatua. Kantabriako Soltxu-Mirian eta Kataluniako Tazuff taldeek parte hartuko dute jaialdian, euskaldun dantzariakaz eta musikariakaz batera.

Herri bakoitzeko musika-tresnen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak erakutsi gura ditu Ahaire Kultur Elkarteak, antolatzaileak; horixe dute helburu: “*Beste behin ere, jaialdiagaz egiaztatuko dugu musikak mugarik ez daukala eta kulturak eremu komunak partekatzen dituela*”.

Kalea izango da taula, musikarako

berezko gune gisa ulertuta, eta esan bezala, Altzaga auzoa izango du agertoki. Zehazki, Irailaren 23a plaza (udaletxe aurrean), metro geltokiaren zabalgunea eta kaiaren inguruko oinezkoentzako gunean arituko dira musikariak.

Eguerdiko 11:00etan elkartuko dira taldeak eta ordu erdi beranduago ekingo diote kalejirari. Oinezkoentzako bideetan zehar ibiliko dira bazkalordura bitartean.

Arrastiko saioa, barriz, erromeria, 18:30ean hasiko da, parte hartzaileek bazkarian indarra bildu ostean; eta ordu bete beranduago izango da folk kontzertua, Irailaren 23a plazan. ○

LIBURUTEGI IBILTARIA ETA ERAKUSKETA

Erandion ere antolatu dute zer edo zer Liburuaren Egunaren harira. Apirilaren 23an izango da eta Liburutegi ibiltaria egingo dute Astrabuduan eta Altzagan, 16:30etik 19:30era. Umeei ipuinak, komikiak eta liburuak izango dituzte, “*irakurriz gozatzeneko*”. Gune berezia edukiko dute horretarako, mahaia eta aulki eroakaz, lasai irakurtzeko. Txikienentzako koltxonetak jarriko dituzte, “*Iurrean beraien txoko txikia eta eroso izan dezaten*”, Udaletik zehaztu dutenez. Bestalde, *Liburuaren Historia* erakusketak prestatu dute. Prozedura osoa azaltzen du hark, idazlearen buruan ideia sortzen denetik paperera heldu arte, diseinua, fabrikazioa, eta azkenik, pertsona batek irakurketa gozatu ahal duen arte.

EUSKAL PILOTAREN MUNDUA EZAGUTZEKO

Euskal Pilota Herri Herri erakusketak bisita daiteke Udaletxeko erakusketak aretoan. Kirola ezagutzera emateko xedea dauka eta Euskal Pilotaren Bizkaiko Federazioak eta Bizkaiko Aldundiak antolatu dute. Pilotaren modalitate guztiak, jatorria eta garapena ezagut daitezke: pasaka, joko garbia, xarea, zesta-punta, erremontea, pala, esku-pilota... Pilotaleku mota desberdinen maketak ere erakutsiko dituzte. Apirilaren 15ean bisita gidatua egingo dute, 18:00etan, eta alde zuretik eman behar da izena parte hartzeko.

DANTZA JAIALDIA APIRILAREN 25EAN

Dantzaren Eguna aitzakiatzat hartuta antolatu du Dantza Jaialdia Getxoko Dantza Kultur Elkarteak, hilaren 25erako. Altzagako metro geltokiaren zabalgunean egingo dute ikuskizuna, eguerdiko 12:00etan. Dantzaren Eguna apirilaren 29an ospatu ohi da, Jean Georges Noverreren (1727) jaiotzaren egunean. Dantzaren izaeraren azterketa teorikorik garrantzitsuenetakoa ekarri zuen berak.

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratisalgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Jurikaldoi

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jota Mendia) T. 490 01 87 48990 GETXO

Juribefm 107.8

Garritz Irratia

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

ETXEBIZITETARAKO IGOGAILUAK
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

BERBALAGUNENTZAKO IPUINA ETA URTEERA

Apirilan ere edukiko dute zereginik Berbalagunek. Ekitaldi bi antolatu dute, hilaren 22an bata, eta 25ean bestea. Mireia Ipuin kontalaria eguna 22an arituko da Kurtzio kultur etxean, 19:30etik aurrera. Antolatzaileen ustez "aukera oso ona" izango da euskaraz irudimena lantzeko. Ondorengo domekarako, barriz, Nafarroako Eguna urteera prestatu dute, Baigorriara. Autobusa Plentziatik abiatuko da 08:00etan eta hamar minutu beranduago hartuko ditu sopeloz-tarrak. Egunaren amaieran itzuliko da. Anima zaitez eta euskaraz parte hartu!

BERTSO JAIALDIA APIRILAREN 16AN

Oraindino garaiz zabilta, bertsozale. Izan ere, barikuan, apirilaren 16an, Bertso Jaialdia izango da Kurtzio kultur etxean. Taula gainetik kantatuko dute Mañukorta, Miren Amuriza, Fredi Paia eta Amets Arzallusek, eta gai jartzaile arituko da Maite Berriozabal. Saioa 19:30ean hasiko da eta 3 euro ordaindu behar da.

LIBURUAREN EGUNA DELA ETA HAMAIIKA EKIMEN

Apirilaren 23an ospatzen da Liburuaren Eguna, eta Sopelan ere hainbat ekimen prestatu dute. Umeei zuzenduko dizkiete 23an eta 24an egin beharrekoak. "Liburutegian jolasean" egingo dute 23an, eta horretarako, gurasoentzako eta umeentzako itxiko dute liburutegia. Biharamunerako, barriz, tailerra eta antzerkia antolatu dituzte kultur etxean, umeek liburuaren garrantziari buruz kontzientzia har dezaten. Baina ekimenik handiena izango da Liburu Azoka, hilaren 25ean. Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egingo dute eta urtean zehar kultur etxe, ikastetxe eta Mankomunitatean bildu euskarazko liburuak bertan erosteko aukera egongo da; liburutegi ibiltaria eta koadernatzeko tailerra ere egingo dute.

Pilotalekua barrituko dute

Behin-betiko konponduko dute eta **ekainean barriro erabilgarri** egotea espero dute



Urte erdiz jokatzeko dituzte txapelketak pilotalekuan

Urteetan konponketa txikiak egiten ibili ondoren, pilotalekua behin-betiko txukuntzea erabaki du Udalak, "mantenurako gastua ikaragarria da eta", Imanol Garai alkateak dioenez. Izan ere, eraikinaren hormek etengabe jasaten ei dituzte pitzadurak eta pintura galerak. Orain 429.420 euro inbertituko dute inoizko konponketa lanik handiena egiteko.

Eraikin osoari eragingo dio obrak, hormatik hasita. Hormigoizko oinarria jarriko dute, porlanezko kapa batez estalita. Gainera, aldagelak barritu eta

igogailua jarriko dute herriko lokalakaz lotzeko. Zehazki, aldagelak ezintasunak dauzkaten pertsonentzako egokituko dituzte. Sei hilabetez luzatuko da egokitze hori, eta bitartean, modulu batean jarriko dituzte kirolarientzako dutxak.

Kurune Pilota Kirol Elkartek erabiltzen du gehien pilotalekua; 73 lagunek osatzen du eskola. Gainera, urtean sei bat hilabetetan zehar egiten dituzte txapelketak. Udalak espero du ekainarako kantxa erabilgarri egotea, maiatzean lanak bukatuta. ○

Aitxu! euskara taldea > Euskaraz atseginez egitasmoa

"Plazetan bizi izan da euskara mendetan, nahiz eta gaurko egoera kezkarria izan"



Martxoaren 13an aurkeztu zuten egitasmoa herriko hainbat pertsona ezagunen laguntzagaz

Merkataritzan euskara sustatzeko asmoz egitasmoa abiatu du Aitxu! euskara taldeak eta haren nondik norakoak azaldu dizkigute.

—Euskaraz atseginez, zertan datza?

—Programa honen bitartez herriko merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatu gura dugu.

—Zergatik horrelako ekimena abiatu?

—Irakaskuntza geletatik euskara ateratzeko. Bernard Etxeparek aldarrikatu zuena praktikan jartzeko: "Euskara plazara!". Azken batean, Uribe Kostako plazetan bizi izan da euskara mendetan, nahiz eta gaurko egoera guztiz kezkarria izan.

—Ekimen zehatza da?

—Bai, zehatza da, ondo pentsatuta eta kontrastatuta dagoen egitasmoa. Bere garapenerako kontuan izan ditugu aurretik beste herri batzuetan izandako esperientziak. Gero Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko Teknikariak

orraztu eta hobetu dugu, eta azkenik, martxoaren 13an aurkeztu genuen jendaurrean.

—Baina zein da Aitxuren egitekoa?

—Orain hiru urte sortu zen euskara taldea. Beste edozein euskara talderen moduan, gure helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea da. Horren garrantzitsua den erakundearen laguntzagain, azpimarratuko genuke herrian era guztietako taldeakaz landu dugun harremana (kirol eta kultur arloetako

«Herriko taldeen babesik barik ezinezkoa litzateke aurrera egitea»

taldeakaz zein ikastetxeakaz). Guztien babesa barik ezinezkoa litzateke aurrera egitea.

—Badarabilzue bestelako ekimenik eskuartean?

—Berbatxangoak, hitzaldiak, ikastarok, erromeriak... ez dira faltako datozen hilabeteotan. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BALBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integratua urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

UNAI BREAK JASO DU CAF-ELHUYAR SARIA

Zientzia-kazetaritza arloan Caf-Elhuyar 2009 saria irabazi du Unai Brea berangoztarrak, ARGIA aldizkariako kazetariak, adimen artifizialari buruzko lanagatik. Brea UK aldizkarian ere aritu izan da hainbat urtean, eta gaur egun ere laguntzen du. Beste sari bi ere banatu dituzte. Batetik, dibulgazio-artikulu orokorraren arloan Leyre Echeazarra saritu dute, ispilu-neuronei buruzko lanagatik; Xabier Artaetxebarriak Aipamen Berezia jaso du. Bestetik, doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluaren saria eman diote Itziar Tuerosi, Bizkaiko Labe Garaietako arrastoak jarraituz lanagatik. Irabazle barik utzi dute gazteei zuzendutako zientzia-narrazioen saria. Aipatu lanok argitaratuko dituzte Elhuyar aldizkariako maiatzeko zenbakian, sariketari buruzko gehigarri berezian. Zorionak, Unai!

SURF ARGAZKIAK EGITEN IKAS EGIZU, URIBEGAZ

Ikusgarriak izaten dira surfari buruzkoak, no-la demontre lortzen ote dute horiek egitea? Ikasi gura? Bada, laster izango duzu aukera, Willy Uribe berangoztar argazkilariaz. Ikastaroak egingo ditu maiatza eta urria bitartean, lau egun ikasle bakoitzari. Estudioan eta hondartzan izango dira saioak, surfari profesionalen laguntzagaz. Urribek jarriko du argazkilaritza materiala eta 300 euro ordaindu beharko da. Informazio gehiago topatuko duzu helbide honetan: unaimagenymilpalabras@gmail.com.

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 077 • reparazi@bunkalmel.net
Bilte kalea 11 ALGORITA

Irakurri eta pasatu Liburuaren Astea izango da 19tik 25era, eta tartean, erabilitako liburuen azoka



Liburu erabiliak eroan ditzakezu kultur etxera, gero azokan saltzeko

Garestiak dira liburuak, askoren iritziz, horregatik gutxi irakurtzen ei dute. Bada, aitzakiarik ez dago hil honetan. Izan ere, Liburuaren Astea antolatu dute apirilaren 19tik 25era, Liburuaren Egunaren harira. Ekimenen artean egingo dute Liburu Erabiliaren Azoka, aste akabuan, 24an eta 25ean.

Liburuaren salmentagaz bildutako dirua ACOBI elkarteari emango diote (Bielorrusiako Umeen Harrera). Euro baten truke eskuratuko dituzu, edo gurago baduzu, zure liburuak kultur etxera eroan eta *liburitoak* emango dizkizute han, gero, azo-

kan, liburu truke aldatzeko.

Baina egongo da beste zereginik egun horietan. Kalera aterako dute umeentzako ludoteka eta liburutegia aste barruko egunetan, eguraldiak lagunduz gero. Eguenean, 22an, barriz, antzezlanagaz eta itzalen ikuskitunagaz gozatuko dute.

Zapatuan eta domekan pilotalekura aldatuko dituzte ekimenak, azokagaz batera egiteko. Ipuin kontalaria arituko da eta taillerak egongo dira bi egunetan. Zapatuan gainera, disko-festari izango da giro, 18:30etik aurrera. Liburuak irakurri eta besteren bati pasatu, ondo pasa eta gozatu! ○

Basartena 2010 > Laburmetraia Jaialdia

Apirilaren 30a arte laburmetraiak aurkezteko aukera egongo da



Patxi Lazkano lehiaketako arduraduna jaialdiaren aurkezpenean

Basartena 2010 Laburmetraia Jaialdia martxan da. Apirilaren 30a arte egongo da zabalik izena emateko epea. Patxi Lazkano Basartena tabernako jabea eta jaialdiaren arduradunak aurkezpenean esandakoaren arabera, diru eta baliabide gutxigaz baina gogo handiz laburmetraiak sortzen dabilen jendea eta eskolei bultzadaxoa eman gura die jaialdiagaz.

Parte-hartzaile bakoitzak lan bi aurkeztu ahal izango ditu; iraupena 25 minutukoa izango da gehienez. Proiektatuak izateko kalitate egokia ez duten lanak, baztertuko ditu epaimahaiak. Lan bi aurkez daitezke eta DVD formatuan entregatu behar dira. Aktore eta zuzendariaren izenagaz, telefonoa eta e-mail helbideagaz batera Basartena tabernara (Elortza kalea 19, Urduliz) bidali behar dira lanak.

Aurten Urdulizko Udalaren lagun-

tza izateaz gain, Plentziako Udalak eta Heinneken enpresak diruz lagunduko dute. Epamahaian, laburmetraien munduan izen handia duten Koldo Serra, Borja Crespo eta Aitor Elorriaga eta EHUko Amaia Nerekan eta Patxi Urkijo irakasleak izango dira. Finalerako hautatutako 12 laburmetraiak uztai-

«Lanak euskaraz zein gaztelerez egindakoak izan daitezke»

laren 24an erakutsiko dira Urdulizko Kultur Etxean. Hiru sari emango dituzte Fikzio (600 euro), Animazio (400 euro) eta euskal eskoletako (200 euro) laburmetraia onenei. Maiatzean zehar aurtengo zein aurreko edizioetako lanak proiektatuko dituzte Basartenan eta Plentzia Telebistan. ○

Informazio gehiago:
www.basartena.com

tanta.
estetika

BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf. 645 739 780
Zure beharrek araberaiko ordutegia

Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez

KOSKA
irratia 108 FM

12€ urtean !!
€1 hilean !!
keskairratia@keskairratia.com
k/ Arnezti 6 4. pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.keskairratia.com



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BAXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREPUAK
ZEREGINAK IKASTEN GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

UDAKO LUDOTEKAN IZEN EMATEA PLENTZIAN

1998 eta 2005 urteen bitartean jaio diren ume eta gaztetxoek Plentziako Uda Ludotekak antolatutako ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute. Izena eman ahal izango dute apirilaren 19tik 30era Ludotekan bertan. Ez dira epe horretatik kanpo egindako eskaerak onartuko. Uztaialaren 1etik 30era eta abuztuaren 2tik 31ra 10:30etik 13:30era egongo da martxan Ludoteka.

URDULIZKO ARETO TXARTELA ESKURAGARRI

Kultur Etxean antolatzen diren emanaldiek izaten ari diren arrakasta ikusita, sarrerak saltzeko sistema barria abiatu du Urdulizko Udak. *Urdulizko Aretoko Txartela* sortu du, Urdulizen errolatutakoek eskuratu ahal izango duten eta sarrerak erosterako orduan lehenatasuna emango dien txartel pertsonalizatua. Hori lortzeko Kultur Etxean eskatu, datuak eman eta argazki bat entregatu beharko dute urduliztarrek.

SANTIAGORA DOAZ GORLIZKO LAGUNAK

Maiatzaren 6tik 9ra Santiagora (Galizia) bidaia egiteko aukera egongo da Gorlizko Udak antolatuta. Buses, aseguruak, 3 ostatugau gosariagaz, egueneko afaria eta bariku eta domekako bazkari biak 170 euroren truke lortu ahal izango dira. Izena emateko Turismo Bulegora hurbildu edo deitu behar da apirilaren 25a baino lehen.

LEMOIZ

BIMEP nuklearreko lurretan gura dute ekologistek



Zentral nuklearra izan behar zuenaren lurretan gura dute ekologistek plataforma

Olatuen energia ikertzeko erabiliko den BIMEP (Biscay Marine Energy Platform) plataforma lekuz aldatzeko eskatu dute Ekologistak Martxan, Talaia eta Txipio Bai elkarte ekologistek. Gaur egun, Armintzako portuan kokatuta dago itsasoko plataforma zatia; ekologistek *"portuko sartu-urteera maniobretan arriskua eragiten duela"* uste dute. Horregatik, zentral nuklearreko malekoiaren aurrealdean, kostaldetik 1.500 metrora jar dezaten proposatu dute.

Bestalde, ikerkuntza zentroa zentral nuklearren eraikinetan eginez gero, merkeago izango litzatekeela eta auzotarren lurak desjabetu behar ez izatea suposatuko lukeela uste dute ekologistek. Zentral nuklearren lurretan Iberdrolaren azpiestazio elektrikoa dagoela gogoratu dute. Azkenik, Europatik datozen diru laguntzei eta BIMEPek sortutako energiari onura ateratzeko, tokian tokiko energia erakundea sortzea eskatu dute. ○

Api. 12 - Mai. 3

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO
▶ **Euskal Pilota herriz herri.** Udaletxeko erakustaretoan, 17:00etatik 20:00etara.

GETXO
▶ **Gizatiar elkartearen elkartasun azoka.** Romoko erakustaretoan. Apirilaren 16ra arte.
▶ **Maria Camiña Bordaren olioak.** Algortako erakustaretoan. Apirilaren 19tik 30era.

PLENTZIA
▶ **Olaia Sanmiguel Canteroren margolanak.** Goñi Portalen. Apirilaren 16tik 30era.

MUSIKA

ERANDIO
▶ **Bilboko orkestra sinfonikoa.** Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilaren 17an, 19:30ean. 2 euro.
▶ **Dantzaldiak orkestragaz.** Irailaren 23a plaza, 17:30ean. Apirilaren 18an eta 25ean.

GETXO
▶ **Emakumeak musikan jaialdia.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 17an eta 18an.
▶ **Bojan Z Tetraband.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 24an, 20:00etan. 12 euro.

GORLIZ
▶ **Abesbatzen kantaldia.** Elizan. Apirilaren 18an, 12:30ean.

PLENTZIA
▶ **Salo dantzak.** Goñi Portalen. Apirilaren 24an, 19:00etan.

SOPELANA
▶ **Musika mahai ingurua.** Kurtzion. Apirilaren 29an, 19:00etan.

▶ Erakusketa
Ongi etorri Palestinara
Palestinara iristean "*Welcome to Palestine*" entzuten da lehenik. Herri palestinarren errealitatea hurbildu gura izan dute erakusketa batez Bakea eta Duintasuna elkarteak eta Biladi Palestinar Kultura Zentroak. Urdulizera iritsi aurretik, Sopolana eta lurreta bisitatu ditu. Hamalau panelek osatzen dute, hainbat egileren argazkiak, mapak, testu laburrak eta Palestinako olerkarien bertsoez. Apirilaren 26tik maiatzaren 7ra egongo da ikusgai Urdulizko kultur etxean. Bizkaiko Aldundiak diruz lagundu du, *Palestinako Lurralde Okupatueta Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbidearen betetzeari buruzko Bizkaiko herritarrei zuzendutako sentsibilizazioa* proiektuaren baitan.
• **Non:** Urdulizko kultur etxean • **Noiz:** Apirilaren 26tik maiatzaren 7ra

LEIOA
▶ **Concerto desconcerto dantza ikuskizuna.** Kultur Leioan. Apirilaren 30ean, 20:30ean. 10 euro.

ANTZERKIA

GETXO
▶ **Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxean. Apirilaren 16an, 19:00etan.

▶ Einstein. Haurrentzako antzerkia. Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 25ean, 18:00etan. 4 euro.

GORLIZ
▶ **Doro Zobaran ipuin kontalaria, euskaraz.** Ikastetxean. Apirilaren 17an, 18:30ean.

BERANGO
▶ **Itzalen ikuskizuna umeentzat.** Berangoeta Kultur Etxean. Apirilaren 22an, 18:30ean.

ERANDIO
▶ **Quiero llegar a fin de mes.** Emakumeak eszenan zirkuitua. Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilaren 24an, 19:30ean. 2 euro.

ZINEMA

LEIOA
▶ **Ander.** Kultur Leioan. Apirilaren 12an, 20:00etan. 3 euro.
▶ **Ponyo itsasiabarrean.** Umeentzat. Kultur Leioan. Apirilaren 14an eta 25ean, 17:30ean. 3 euro.

GETXO
▶ **Zine-kluba.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 23an eta 30ean, 22:00etan. 2,90 euro.

BESTEAK

SOPELANA
▶ **Burdinen arteko herria liburuaren aurkezpena.** Plaza Beltza gunean. Apirilaren 15ean, 19:00etan.
▶ **Pelvis oinarria lantzeko tailerra.** Kurtzio Kultur Etxean. Apirilaren 13tik 20ra, 18:30ean.

GORLIZ
▶ **Automakilaje ikastaroa.** Kultur Etxean. Apirilaren 16an 11:30ean, eta 23an 17:30ean. Doan.

GETXO
▶ **Sarea Josten ekimena, hainbat ekitaldi.** Apirilaren 24ra arte.

PLENTZIA
▶ **Multiabentura asteburua gazteentzat.** Maiatzaren 7tik 9ra.

LEMOIZ
▶ **Lore eta Zuhaijka edergarriak ikastaroa.** Armintzako baratze batean. Apirilaren 17an eta 24an.

al dai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

ARMOR
AENOR

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

SATISTEGI CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Iraultza jolastokian

Oporrak igaro dira eta eskolara bueltatu dira, baina asteotan, umez gainezka egon dira eskualdeko jolas-parkeak. Argazkiotan ikus daitekenez, modernotasuna iritsi da horietara ere. Multimedia jolastokiak eta kirola egiteko aparatuak, gomazko zoru seguruak... Non geratu ote da herdoilez betetako burdinezko kulunken enkantua?

Argazkiak: **Hodei Torres**





Be beauty!

zure burua aldatu
behar baduzu ere

2010eko martxoa, Metro Bilbaoko Leioako geltokian. Ez da muntaia, kasualitateak eragindako argazkia baizik, baina bertan egon eta konturatu behar. Asier Mentxaka UK-ko argazkilaria begi zorrotza ohartu zen egoeraz, metroan zihoala. Parez pare emakume gazte bat zeukala irudituko zitzaion agian, harik eta aldizkaria aurpegitik kendu, eta haren atzean, adineko gizona topatu arte. Gogoetarako aukera ere ematen du irudiak: polita gaztetasuna eta kremen, bisturiaren zein *photoshoparen* perfekzioa omen jendarte honetan; eta zimurra, ezabatu beharreko akatsa. Bitxia ere atzeko mutilaren soa, ematen baitu argazkiko emakumeari begira dagoela.

ASIER MENTXAKA

“Getxoko euskaldunak eta euskaltzaleak alkartzea, alkar ezagutzea eta jarduera xume batzuk alkarregaz antolatzea” dira Getxoko 35 eragile baino gehiagok itsasoratu duten Sarea Josten ekimenaren helburuak. Herriko eragileek alkarregaz adostuta, landuta eta osatuta, apirilaren bigarren asteburutik azkeneko aste akabura bitartean egingo den jardueraprograma da Sarea Josten-en lehenengo arrantza: eragileen nondik norakoen argazki erakusketa, irratsaioak, musika emanaldiak, berbaldiak, mahainguruak, mendi urteerak, bertso saio didaktikoa, e.a. herri bazkaria ahaztu barik! Halaber, eragileen artean badira urteurrena ospatzen dabiltzanak, eta euskararen itsaso gazian euren oparia ere bada ekimen hau.

Sarea Josten

euskaraz arraunean, euskararen arrantzan

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **ALBE, Bizarra Lepoan; Hodei Torres**

Kostaldeko herri “arrantza” askok ize-nondoa galdu zuten aspaldi. Arrantzari lotutatu lanbide asko ere desagertu ziren harrez batera. Ostera, itsasoa beti hur. Baina badira, mendeak joan mendeak etorri, galdu edo hil ez direnak, galtzen eta hiltzen utzi ez dituztenak egon diren heinean...

Sarea Josten ekimena ipini du martxan eragile getxoztar andanak, euren aurkezpen-manifestuaren lehenengo lerroetan irakur daiteke: “Euskararen alde modu batera edo bestera lanean gabiltzanok, askotan enabiltzen dugu sarearen metafora. Getxo euskalduna gura dugula edo Getxon euskaraz bizi gura dugula esaten dugunean, sarea aipatzen ari gara. Euskararen sarea indartu eta zabaltzeaz ari gara, euskaldunon arteko harreman-sareaz ari gara. Zer da sare bat?”

Arrantzaleen erreminta, lanabesa dira sareak; kaian eserita, eskuz, jostorrazak atzamarrak zaurizatzen zizkiela, hariak alkarri puntuz lotuz zaharbarritzen zituzten (herri arrantzaleetan dituzte, oraindino) sare-konpontzaileek. Gaur egun sare birtuallak daude, eta sare sozialetan ere berba egiten da. Sarea Jostenekoek diotenez, “Sarea

da harien bitartez puntuak lotzen dituen osotasuna. Sareak, beraz, elementu bi ditu: puntuak eta hariak... Puntuak euskaldunak gara eta hariak dira gure arteko harremanak. Eta biak dira garrantzitsuak eta ezinbestekoak sarea osatzeko... Hemen alkatu garen guztiok lanean gabiltza Getxoko euskararen sarearen punturen batean: euskaltegia, berbalagun-taldea, institutua, guraso-elkartea, taberna, familia, koadrila, euskarazko komunikabidea e.a. Horiek denak puntuak dira,

“Puntu asko falta dira oraindino, falta direlako zuloak daude sarean; gutako bakoitza puntu bat da...”

horietan euskaldunak daudelako... Hala ere, puntu asko falta dira oraindino eta falta direlako zuloak daude sarean; joango gara sarea ehuntzen, bagabiltza josten. Baina puntuak ez dira bakarrik taldeak edo alkarrekoak edo erakundeak... Gutako norbanako bakoitza puntu bat da Getxoko euskararen sare honetan. Eta ez gara puntu gutxi Getxon. Uste baino gehiago gara... Eta, lehen esan bezala,

sarea egiteko, puntuak bezain garrantzitsuak dira hariak, eta uste dugu Getxoko euskararen sare honetan puntu gehiago dauzkagula hariak baino. Institutuko ikasleek tabernariagaz euskaraz egiten badute, badago hariarik... Hariak lotzen ditu sarearen puntuak, familia barruan, koadrilan, gurasoen artean, lankideen artean. Goazen bada, orratzak hartuta Getxoko euskararen sarea jostera, denon artean, euskal kanta zaharrak dioen moduan: ...kolpe, kolpe, kolpeka, josi eta josi,

si, josi eta josi!”. Sarea, amarauna, alkargu-nea, jostundegia; puntuak euskaldunok; hariak gure arteko hartuemonak... Beste kanta bat buruan kolpeka: euskara putzu sakon eta ilun bat zela zioena, euskaldunok ur gazi bat atera genuela, handik nekez, “eta orain zuen birtutez, zuen indarrez euskara itsaso urdin eta zabal bat izango da”, eta “guria da” arraunean egiteko, arrantzan egiteko. Boga!

EGITARAUA: Apirilak 9-24

- **Erakusketa:** Txorimalo gaztetxea (hilak 7); Kirol Portua (hilak 11); Aldai Patronatua (hilak 12-15); Malakate parkea (hilak 16); Geltokia plaza (hilak 17); Portu Zaharra (hilak 18); Aixerrota institutua (hilak 19-22), Santa Eugenia plaza (hilak 23); Romo eskola (hilak 24) eta Areetako metro plaza (hilak 25).J
- **Antzerkia eta folk jaialdia:** hilak 9, Txorimalo gaztetxea.
- **Bertso-saio didaktikoak:** Hilak 13 (16:30/19:00), eta hilak 14 (08:30/10:30) Romoko Santa Eugenia kultur etxea. hilak 15 (09:15/17:00/20:00) Algortako Villamonte kultur etxean,
- **Berbaldia:** “Hizkuntza Eskubideak”, Paul Bilbao. Hilak 14 (19:30). Algortako Aldai Patronatua.
- **Musika jaialdia:** Hilak 16 (17:00). Juan Bautista Zabala.
- **Berbaldia:** UKTEST. Hilak 16 (19:00) Santa Eugenia kultur etxea.
- **Kantu-poteoa:** Romo kantetan. hilak 16 (20:30).
- **Mendi urteera:** Familiei begira. Hilak 17 (egun osoan zehar). Gorliz.
- **Literatura berbaldia:** Maite nuen eleberraren itzultzaileagaz, X. Paya. Hilak 19 (20:30). Aldai Patronatua.
- **Ahozko literatura emanaldia:** San Nikolas ikastolako DBH 3ko ikasleak. Hilak 20 (18:30). Aldai Patronatua.
- **Eskualdeko komunikabideen mahaingurua:** Hilak 21 (19:30). Aldai Patronatua.
- **Musika saioak:** Batxillerreko ikasleak (10:20) eta DBHko ikasleak (13:30). Hilak 22. Aixerrota institutua.
- **Dokumental emanaldia:** Getxo akordaten naz. Hilak 22 (20:00). Santa Eugenia kultur etxea.
- **Piropo festa:** Ahozkotasuna lantzea helburu. Hilak 23 (11:45). Aixerrota institutua.
- **Kantu-poteoa:** Algorta kantetan. hilak 23 (20:30).
- **Mendi urteera:** Hilak 24 (09:00) Gorliz.
- **Herri-kirolen erakustaldi-lehiaketa:** Hilak 24 (12:00). Romo. Kultur etxea. 16:30/19:00
- **Herri bazkaria:** Hilak 24 (14:30). Romoko frontoia.



ALBE

Ezagunak eta aspaldi lanean dabiltzan hiru elkarteren urteurrenak aitzakia ederra Sarea Josten hasteko

Sarea Jostenen eragileek kezka bati aurre egiteko hasi dira hariak eta puntuak alkar josten, “asko gara, baina bananduta gaude” da arduratzen dituen korapiloa. Hori askatu guran aukera bat ikusi zuten pare-parean: eragileetako batzuk, herrian ezagunak eta aspalditik beharrea dabiltzanak, urteurren potoloak betetzen dituzte aurten, hain zuzen ere Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE), Bizarra Lepoan euskara elkarrekin eta Egizu-k. Urtebetzeak medio ekimenaren

Barrenetxea eta Trino Azkoitia Azpitarte, hurrenez hurren Mendaroko eta Azkoitiko seme getxoztartuek Bilbon euskararen alde egin zen jaialdi batean ezagutu zuten alkar, eta “txiripaz” gertatutako alkar ezagutze horretan erein zuten Algortako Zabala herri-ikastetxeko gela batean erneko zen bertso-eskola. ALBEko historian kontatzen duteenez, “Edozelan ere, elkar ezagutze hura ez zen izan kasualitate hutsezkoa; izan ere, sasoi hartan euskal giroa gorantz zihoan etengabe,

“ALBE, 30 urte bertsolariak sortzen, bertsozaleak trebatzen, euskaldunak bertsozaletzen...”

helburua alkar ezagutzea eta horretarako aukeratutako metodoa alkarlana.

Horrenbestez, urtebetzea ospatzekotan dabiltzanez eta kolore askotako Sarea Josten ekimenaren bultzatzaileetako batzuk direnez, alkar ezagutzeko bidea aipaturiko taldeen ibilaldiari errepaso laburra egitea da.

Nagusienetik hasita, 30. urteurrena betetzen du ALBEk. 1980an Andoni Iriondo

baita euskaldunen kopurua ere, eta euskaltzaleak sarri-sarri elkartzen ziren euskararen aldeko ekitaldietan; gau-eskolak eta euskaltegiak ere indarrean zeuden; orduko giro hark lagundu egiten zion euskalgintzari, oro har. Bertsolaritza mailan ere, barrikuntza airea zetorren, batez ere Bizkaia aldean, Xabier Amurizaren eskutik. Amuriza... bertsogintza inaultzen hasi zen: bertsolaria,



Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen prentsaurrekoa

sortzez ez ezik, eskolatuz ere egin zitekeelako ideia barritzaila; euskara batuaren erabilera; bertsoaren alderdi formalaren garrantzia...". Kontatzen dutenez, Amuriza Bilbo aldean hasi zen bere teoriak zelanbait gorputzu guran, ikastaroak emoten; "handixek sortu ziren, gerora bertso-eskola barriak deituko zirenak, kasurako, Algortakoa". Urte bat geroago "eskolak formalagoak" ziren eta San Nikolas ikastolako gelatan eskaintzen ziren. 1982-1985 bitartea "Urrezko Aroa" legez definitzen dute ALBEkoek, "Eskola ez ezik, euskal giroa ere gonaldean zegoen. Ikasle kopurua ikaragarri handitu zen... Irakasle gehiago ere behar izan ziren; Trino Azkoitiag gain, Mungiako Karlos Ibarzabal ere irakasle aritu zen. Hirurogei bat ikasle izateraino ere heldu zen gure Algortako bertso-eskola".

“Euskaltegiek Berbalagun ekimenean euren hazia ipintzean erditu zen Bizarra Lepoan Egizuz, orain 10 urte”

Halere, hurrengo urteetan "taldea ikaragarri murriztu zen, baina, zorionez, euskaltegietatik-eta jende barria sartu zen". 1989-91n eskualdeko ikastetxeetan bertsolari- zeskolak emoten hasi ziren, "etorkizunearan giltzarri suertatuko zen jauzia; Algortako San Nikolas ikastolan, Sopelako Ander Deunan, Leioako Gobelan (egun Betiko ikastola dena), Getxoko Geroan e.a.;

urte amaierako "Ahobien Gala" antolatuz zuten; baita Aldai Patronatura egoitza aldatu ere. Ondorengo urtean egindako gogoe-tan hala diote, "Gure oraingo helburua helburu txikiago askogaz osatuta dago, hots, pausoz pauso eta ibiliaren porazuz egin ditugun lorpen txiki guztietan hobetzea eta sakontzea; Esan dezakegu, hutsuneak hutsune eta akatsak akats, egun ALBE bertso-esko-

la normalizatua dela, eta okerrik ezean, bihar-etzi ere hor izango dela, bertsolariak sortzen, bertsozaleak treba-tzen, euskaldunak bertsozaleak eta bertsoaren kultura esportatzen". Orduetik bertsoan, beharrea... kantsa barik beste 10 urte joan dira.

Bizarra Lepoanen 15. urteurrena

Euskarazko aldizkari bat sortzeko asmoak lore-hautsez zuten garaiko euskal aire eta giroa, eta lore-hauts haletako batetik zutitu zen 1995ean, aldizkariaren izen beragaz, Bizarra Lepoan euskara elkarte. Hasieratik bi izan dira bere helburuak: Getxo mailan euskararen erabilera sustatuko duen dinamika sozial zabala eragitea, normalizazioari begira; eta euskal kultura indartzea, hainbat jardueren antolatuz, eta antolatzen diren euskararen erabilpen egokia bermatzen ahaleginduz. Martxan dituzten ekimenen eta jardueren artean hurrengoak daude: Bapiruke (aisialdian umeen artean euskara sustatzeko), GEHI (kirol-aisialdi taldeakaz hitzarmenak egitea euskara lantzeko), Bertoko euskaru egitasmoa (eskualdeko euskara bultzatzeko, ezagutarazteko), Toponimia ibilbideak, Udal hauteskundeetan alderdi politikoakaz batu euskara arloan eragiteko (*Hizkuntza politika proposamena*); *Aitzakiarik ez* udako sentsibilizazio kanpaina, eta Eredu erdaldunen salaketa.

EGIZU, 10. urte

Bizarra Lepoanen Berbalagun egitasmoan euskaltegien partehartzea lortzeko helburuagaz osatu zuten den artean *Egizu* Getxo Euskaldun elkartearen elkarte 2000.ean. Asmo nagusia Getxoko euskaldun komunitatea sendotzea eta hedatzea da, "euskararen erabilera areagotzeko denok dugulako zer eman eta zer jaso". Abian dituen ekimenak dira: Berbalagun taldeak eta kultura jarduerak, Uribe Kostako Irakurzaleen txokoa, *Gazte saltsa*, *kirola euskaraz*; *Kliska* hilabete-karia eta familiei begirako Sendi proiektua. ○

Informazio gehiago:

- Sarea Josten: www.sareaajosten.net
- ALBE: <http://goiena.net/blogak/albe>
- Bizarra Lepoan: www.blogari.net/bl
- EGIZU: www.blogari.net/egizu



Josu Esnaola > euskaltzalea

“Azken batean, gure esku dago; gure borondatearen esku gelditzen da historia”

Josu Esnaola (Elgoibar, 1962) 22 urte zituela getxoartzatu zen; Bizarra Lepoanen sorreran, *Egizu*-ren hastapenetan eta ALBE-n ere ibili da.

—Zer giro garai haletan? Zerk bultzatzen zintuzten euskararen alde lan egitera?

—Bizarra Lepoan hasieran aldizkaria bakarrik zen; beste talde bat ibili zen hor, Jokin (Aspuru), Konra (Konrado Mugertza) e.a. Batzuek pentsatzen genuen aprobetxatu behar zela momentu hori, jendea batzen ari zela eta, ez aldizkari bat bakarrik ateratzeko,

euskaraz, ez ia aisialdiko talderik, edo euren lehentasuna ez zen euskara inondik inora. Aisialdiko ekintzak egiten hasi ginen, batez ere guri begira, gure gustukoak; geuk ere beharra bagenuelako... Batzuek aerobica egiten zuten, zergatik ez egin euskaraz? Apurka, eremuak irabazten joan ginen. Euskaldunak izan eta, kalean eta euskaldunen batekin aurkituz gero bai, baina bestela, antzerkera edo halakoetara joanez gero euskaraz oso gitxi... —Ibilaldian bidaide eta ekimenak jaio, desagertu, loratu zein antzutzen joango ziren?

“Pena ematen didana da galtzen ari garela gure kulturaren zati handia; hizkuntza, bera bakarrik ez doa inora”

herri honetan bazirelako beste behar batzuk ere. Lehenengotan horretan ipini genuen indarra, aldizkaria atera-bultzatzean. Aurrera zihoala ikusi genuenean, beste lan batzuetan hasi ginen, gaur egun Bizarra Lepoanek egiten duena edo, beste maila batean, hasierak zirelako! Herri honetan bai heldu, ume zein gazteentzako eskaintza euskaraz egiteko beharra zegoelako. Ez zegoen kirola egiterik

—Desagertuen artean: udazkenari ongietorria egiteko erromeria. Indar kontua izaten da, eta hortik ateratzen denak merezi duen. Aerobica ere, batez ere irakasleak aurkitzeko zailtasunengatik. Eta aretoko dantzak, leku falta, irakaslearen ordutegia... Gitxi izanda beti arazoak! Yogak jarraitzen du...

—Oraingo egoera; aldaketak egongo ziren? —Zorionez jende gaztea sartu zen, indartsu-

ago. Urte nahikotxo ibili ginen, ia onenak emanda geunden gu! *Egizu* inoiz baino hobeto dabil; hasieran taldeak bakarrik osatzen genituen, jendea ordutegiagatik elkartu, ez adibidez zaletasunen arabera. Gero tertuliak antolatzen hasi ginen, gonbidatuak ekartzen, apurka irteerak e.a. Orain gauza piloak egiten du, hobera egin du, eta asko! Beste batzuk, gorabeherekin, baina, mantendu dira, adib. irakurzaleena; ari dira bidea egiten.

—Eta etorkizuna?

—Gure esku dago neurri handi batean; geuk erabilz gero aurrera egingo du. Gero eta errazagoa da beste hizkuntzetara jotzea, gaztelaniara, ingelesera. Arazoa hori da, euskara hautazkoa dela, besteak ez, derrigorrezkoak dira. Orduan, geure borondatearen esku gelditzen da historia; halako egitura politiko sendorik ez daukagun bitartean... Nik uste nahiko fidelak garela hizkuntzarekiko, horrek esperantzaxoren bat ematen du. Pena ematen didana da galtzen ari garela ohiturak edo, gure kulturaren zati handi bat. Ez ditugu ezagutzen zuhaitzen izenak, ez loreenak! Altxor hori gure gurasoenganaino heldu zen. Halere, naturarekin ez gaude oso lotuta, horrek ere eragiten du. Baina kantatzeko ohitura, kantak? Gazteen artean zeinek ezagutzen ditutu betiko edo Azkuek jasotako kanta zaharrak? Plazetan ez da dantzatzen, garai batean "Pirinioen oinetan dantzatzen duen herria" ei ginen! Hizkuntza bai, baina bera bakarrik ez doa inora; euskara ezin da izan gaztelearen itzulpen hutsa. Euskarak bere mundua du, eta uste dut, mundu hori ari garela galtzen. Erronka handiegia da hori, agian, ezta?

—Eztabaidetan hamaika biderrez entzundakoak: "militantzia", "profesionalizazioa".

—Idealea: biak uztartzea. Lanean bat, bi, behar direnak, ez dago gaizki. Baina dena horien esku uzten bada, askotan gertatzen dena, azkenean elkarte soldatapekoek baino ez dute osatzen; arriskutsua da. Baina, ez dago beste modurik. Orain 30-40 urte beste erritmo batean bizi ginen, beste gizarte bat, denbora gehiago geure buruari eskaintzeko, bestelakoe-tan ibiltzeko; gainera, ez zegoen halako eskaintza kultural zabalik ere. Profesionalik ez badago oso zaila da aurrera eroatea. Euren lana egingo dute, kudeatu, antolatu; baina atzean egon behar dute bestelako "militanteek".○



Sarea Josten ekimenaren lehenengo bilera

Zorionak, familia!

Zenbaki berezia dugu UK-ko hau. "Sakonean" atalean, "Sarea Josten" ekimenaren barri emateaz gain, horretarako aitzakia izan diren hiru elkarteren historiaren nondik norakoak kontatu ditugu. Fotografia atal honetarako, gure oroitzapenen kutxatik zein elkarte horietakoenetatik hartutako argazki zaharrak batu ditugu. Getxoko hiru elkarte, zeregin desberdinetakoak, baina hirurak euskaratik eta euskaraz beharrean. Alde batetik ALBE, 30 urteko gazte (ez hain gazte) bertozale parranda zalea. Bestetik, Bizarra Lepoan, pubertaroan sartu barri den 15 urteko nerabe irudimentsua. Azkenik, Egizu, 10 urteko umea izan arren, asmo handiak dituen bihurria. Hona hemen famili albuma. Zorionak, zuei!

Argazkiak: **ALBE, Bizarra Lepoan, Egizu, Hodei Torres.**



Sarea Josten ekimenerako irratsaioak. Golan, Jose Antonio Agirre Euskaltegia; behean, Getxo Herri Kirol Taldea





ALBE



ALBE



ALBE



UK37



BIZARRA LEPOAN



BIZARRA LEPOAN



BIZARRA LEPOAN





EGZU



EGZU



[zinema]

Animazioaren mundua

Animabasauri-Animabasque **nazioarteko zinemaldia** hilaren 23tik 30era **Basaurin**



Informazio gehiago: www.animabasauri.com

Seigarren edizioa beteko du aurten apirilaren 23tik 30era bitartean egingo den Animabasauri-Animabasque Nazioarteko Animazio Zinemaldiak. Basauriko (Bizkaia) antolatzaileen esanetan, "inoiz baino indartsuago" dator aurtengo zinemaldia eta edukiei dago kienez aniztasuna goraiatu dute. "Mundu osoan egiten diren animazio lan onenen lekuko" eta ekitaldien gune nagusia Basauriko Social Antzokia izango da, halaber, Bilboko Multicines zinema-aretoak, FNAC eta Leioako EHUren campusean ere ikusi ahaliko dira Animabasauri-Animabasque zinemaldiko zenbait lan.

Urtero legez, zinemaldia hainbat sailetan banatzen da, batzuk sail ofizialak deritzenak, hau da, lehiaketa bidez antolatzen direnak, berbarako: Luzemetraiena (8.000 euroko saria), Laburmetraiena (35 mm-tan; 1.000 euroko saria), Karratu saila (DVD formatuko laburmetraiena; 600 euroko saria), Telesailena eta Animazio Eskolena. Bes-

talde, ohi legez, lehiaketatik kanpo, edo sail ez ofizialean beste ekimen andana antolatu eta eskainiko ditu jaialdiak, besteak beste: atzera begirakoak, lantegiak, erakusketak, Goya Sariak, Herrialde gonbidatua, euskal zine emanaldiak, eskolaz hitzartutako haurrentzako zine emanaldiak, Animazioa ikasgeletan, maratoia, animaziozko telesailak, Cartoon Door e.a.

«Aurtengo ekimen barrien artean 3D Wire eta Komikia: 9. artea sailak dira aipagarri»

Osterantzean, aurtengo ediziorako, ekimen barri bi ere iragarri dituzte, ondorengoak: 3D WIRE saila, bertan "publizitate munduan aplikatutako animazioa aztertuko da", eta komikiaren historiari begirako Komikia: 9. artea saila.

Horrenbestez, animazio zine munduaren azken barrien gainean jakinmina duenak badaki non-noiz den hitzordua. ○

Jazzaldiak badauka izar bat

Jerry Gonzalez tronpeta jotzailea XXXIV. ekitaldian jardungo duen kartelburuetako bat izango da



Jerry Gonzalez (New York, 1949) tronpeta jotzailea

Getxoko Nazioarteko Jazzaldirako bere parte-hartzea baieztatzen lehenengoa izan da Jerry Gonzalez (New York, 1949) tronpeta-jotzaile estatubatuarra. 70. hamarkada akabuan sortutako The Apache Band bere taldeagaz jardungo du XXXIV. Getxoko Jazzaldian, eta erritmo afro-karibearrakaz kutsatuko du jaialdia.

Beragaz batera jazzaldiko gainontzeko egunetako kartel-buruak nortzuek osatuko dituzten oraindino ez dute argitu antolatzaileek; oster, aurtengo ekitaldia noiztik nora ospatu den dagoeneko zehaztu dute, uztaileko lehenengo bost

egunetan zehar egingo da, hain zuzen ere.

Horrez gainera, "Europako talde gazteen lana bultzatzea" helburu duen Talde Gazteen Lehiaketan parte hartuko dutenak ere aukeratu dituzte daborduko. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "aurten 14 herritako 40 taldek emon dute izena lehiaketan" eta, horien artean, jaialdiaren epaimahaiak ondorengoak hautatu ditu: Italiako Crickets, Finlandiako Maratone Quintet, Poloniako Wierba&Schmidt Qt. eta Espainiako GDjazz 4tet. Hala bada, badoa Getxoko Jazzaldia aurtengo egitura apurka-apurka osatzen, zehazten. ○

Sagarroi > Agur!

Arantzak barru alderantz oraingoan; ziztada hotza eta uzurtu egin gaitu sare bidezko barriak: "10 urtez jardun ondoren, Sagarroi musika taldeak guztioi agur esatea erabaki dugu". 2001.ean Joxe Ripiau talde arrakastatsua desegin zenean, Iñigo Muguruzak osatu eta bultzatutako egitasmo edo ibilaldi barriak ere haren bide bera hartu du hamarka baten ostean. Bitarte horren lekukotzat bost disko utzi dituzte: *Meatzaldea* (Metak 2001), *Euria ari duela* (Metak 2003), *Toulouse* (Metak, 2004), *Baleike* (Kasba, 2006) eta *Haikua* (autoekoizpena, 2008). Horrez gainera, ezin ahaztu *Ezekiel* Antzerkiola Imaginarioa (FTI) eta "PCs de colores"-gaz batera sortutako euskarazko antzezlari musikatua; eta munduan zeharreko ehundaka "kontzertu kuttunak"! Halere, zurrumuru onberek diotenez, badirudi talde eta asmo barriak etorkizun hurbilean dantzan dabiltzala

Informazio gehiago: www.sagarroi.com

proposamena > Flakutt taldea

Uharterko (Nafarroa) Txalaparta Tailerraren (UTT) eta Elektroflak egitasmo elektronikoren arteko uztarketatik sortu da Flakutt taldea. Iazko urte amaieran plazaratutako lehen diskoaz hala diote: "ez da barria txalaparta beste musika molde batzuekatzuztartzeko asmoa; ez da barria txalaparta eta musika elektronikoa ezkontzeko nahia ere, baina agian ez zen egongo orain artean musika lengoai bi horiek elkarren arimura ekartzeko Flakuttek izan duen besteko borondate irmo eta sendorik".

Informazioa: www.hotsak.com/artistak/flakutt

diskoak

Marraren beste...
Seiren
Brian's Records



2005ean sortu zen bizkaitar taldea eta *Marraren beste aldean zu*, horixe da bigarren lanaren izenburu osoa. Andoingo Garate estudioetan grabatu dute Kaki Arkarazogaz. Hamar abestik osatutuz dute taldearen bigarren lan hau, horietako bat instrumentala. Aurrerapen singlea entzungai jarri zuten: "Bere oroimenean".

Odola Sangre
De Diego Brothers
Gaztelupeko Hotsak



Bartzelonan osatutako boskotea da De Diego Brothers. Lehen diskoa Bizkaiko Bilbaina Jazz Cluben grabatu zuten 2005ean, eta orain, *Odola Sangre* lana kaleratu dute. Boskotearen heldutasun musikala erakusten du. Gai guztiak Juan de Diegok konposatu ditu, bi izan ezik: *Carota* (E. Raspall) eta *Pantxi* (V. de Diego).

Eskuz lurrari
Pello Ramirez
Elkar



Bakarko bigarren lana du honako hau Pello Ramirez musikari eta konposatzaileak. Instrumentala da: akordeoia, txeloa eta pianoa. Hainbat musikaririk parte hartu dute: Konposizio guztiak egin ditu Pello Ramirezek, baita diskoaren moldaketa, zuzendaritza eta produkzioa ere. Gainera, hainbat musikaririk parte hartu du grabaketan.



GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urteik, Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartean ikastola bakarra.



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAURKO!



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Vilamorta plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Txalaparta umeei begira

Hiru liburugaz hasibarri du Tafallako argitaletxeak **Txo!** haur bilduma

OQO argitaletxe galziarragaz egindako hizarmenari esker, Tafallako Txalaparta argitaletxe "aske eta independenteak" haurrei begirako *Txo!* bilduma edo saila abian ipini du orain dela gutxi. Argitaletxe nafarraren aspaldiko asmoa zen *Axuri Beltza* "haur eta gazte literaturari" zuzendutako sailari neba-arreba txikia emotea eta hala, joan den urtea hiltzorian zegoela jaino zen 4-7 urte bitartekoei bideratutako bilduma. Pontevedrako argitaletxeagaz egindako akordioaren bitartez Txalapatark haien *O* bildumako lanak euskaraz eskainiko ditu, koedizioaren bidea baliatuz, eta iragarri dutenez urtean 6 liburu itzultzeko eta kaleratze asmoa dute. Dagoeneko hiru dira

«Galiziako OQO-gaz koedizioan, urtean 6 liburu plazaratuko dituzte»

bilduma abiarazi duten liburuak, *Kokoriko*, *Aharrausi printzesa* eta *Basoak badu sekretu bat*. Marisa Nuñezek idatzitako *Kokoriko* ipuinari Helga Banschek ipini dizkio marrazkiak, eta Xabier Sobrinok sortutako *Aharrausi printzesa* ipuinaren zein Carmen Gilen *Basoak badu sekretu bat* lanarena irudiak Elena Odriozola marrazkilari donostiarrak egin ditu, azkeneko Euskadi Saria jaso duen irudigileak. Eta hiru lanok eus-



Aharrausi printzesa ipuina da bildumako bat

karara ekarri dituen (gaztelaniazko bertsiotan oinarrituta) Arkaitz Goikoetxea izan da eta hirurak 13 eurotan daude salgai.

Txalapatarko kide Mikel Sotok bildumaren aurkezpenean adierazi zuenez, "tradizioa eta abangoardia edo uztartzen ditu bildumak, eta edizioaren kalitateagatik nabarmentzen da". Azaldu zuenez Galiziako argitaletxeak gazte literatura arloan badu bere ospea eta nazioarteko idazle eta irudigileen lanak argitaratzen ditu galegoz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, e.a. Orain euskaraz ere gozatzeko aukera eskainiko digu Txalapartak. ○


Informazio gehiago: www.txalaparta.com

liburuak



Nora ez dakizun hori
Irati Jimenez
Elkar

Munduan zehar ibili ostean Bilbora itzuli da Martin argazki erakusketa egiteko; Norak irratian behar egiten du gauero. Ipuinek eta kasualitateak batuko dituzte Nora eta Martin. Ipuinak entzuteaz eta kontatzeaz gain, ipuin batean sartuko dira protagonistak.



Bilbo Samurai
Fernando Morillo
Txalaparta

Dena amildu zenean, Hondamendian, ez zen aienetarako astirik izan. Bilbo Samurainen historia da hau. Bizkarrean daroan sega eta Xuri gaztea bidelagun, herriz herri eta borroka borroka dabil Bilbo, Hondamendiaren aurretik Euskal Herria deituriko lekuan.

[kirola]

Kirolak sareratu dituzte

Getxoko Udalak kirol jardueren **web gunea** barritu du; **partidak zuzenean** ikus daitezke



Getxoko kirol jardueren gainera sareko gunearen irudia, iragan barri den martxoan

Getxoko Udalak herriko kirol jardueren gainera web guneari bultzada barria emon dio, irudia eta erabilgarritasuna lotzeaz gainera, eskaintza barriak ere gehitu ditu.

Alde batetik, sareko gunearen "irudi estetiko hobetu" dute, besteak beste, argazki handiagoak ikusteko aukera emonez, "menu intuitiboagoa" ipiniz, eta "kolore korporatiboak" erabiliz.

Orain arte egin legez, Getxoko kirol jardueren eguneroko informazioa eskaintzen du guneak, alde horretatik albisteak, alkarriketak, hainbat talderen partideen emaitzen eta sailkapenen inguruko barriak, aste akabuko kirol agenda e.a. irakur dezake gunean sartzen denak. Komunikazio saileko arduradun Josu Loroñok adierazi duenez sareko gunearen "hobekuntza horiekaz kirol informazioa zaintzen saiatzen ari gara eta gure kirolarien jarraipena egiten dugu, bai indibiduala bai taldeka. Era berean Udal Komunikazio Sailak herritarrengana ailegatzeko garai hauetara egokitutako tresna barria du".

Bestalde, bada barrikuntzen artean, arreta berezia merezi duen eskaintza, hurrengoak: "partidak zuzenean online jarraitzeko auke-

ra" emoten duena, hain zuzen ere. Iragarri dutenez, guneak "taldeen mailaren araberrako partida nabarmenenak (futbola, saskibaloia, errugbia, belar hockeya, patin-hockeya eta eskubaloia)" sarean zuzenean ikusteko parada eskainiko du. Horrez gainera, garaian garaiko bestelako kirol ekitaldi esanguratsuak ere zuzenean ikusi ahal izateko aukera ere ez dutela baztertzen jakinarazi dute arduradunek. Hala-

«Partidak zuzenean online jarraitzeko aukera eskaintzen du guneak»

ber, zuzenean eskainiko diren partidak zeintzuk izango diren gunearen atarian aldeztatik iragarriko dutela ere jakinarazi dute.

Amaitzeko, adierazi dutenez, "kirolagaz zerikusia duten albisteak ezagutzera eman gura duten erakundeentzat, klubentzat edo kirolarientzat dago zabalik". Horren osagarri herriko 8 talderen emaitzak (bitarteko edo azkenak) bidaltzeko SMSak igortzeko doako zerbitzua ere eskaintzen dute. ○

Lotura: <http://kirolak.getxo.net>

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA

350 M² KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MAPA GARZAK
- 30 MINUTUEN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 20 UNTEZ ZUZEN ZERBITZUA
- BATERA OGAN

Tf. 94 430 52 00 KASU 18 - ALGORTA

Gotzon Elortza > Euskarazko lehen lau pelikulen egilea

“Ikus-entzunezkoetan atera ezean, hizkuntza gutxituak galduko dira”

Debekuen garaian bidea zabaldu beharra dago, ondorengoek egin ahal izateko. Euskarak ondo daki hori, ezagutu du makina bat kolpe, baita gaur egun ere. Bizirauteko, erabili behar, eta arlo guztietan. Horretaz jabetu zen Gotzon Elortza 60ko urteetan eta euskarazko lehen lau pelikulak egin zituen; harribitxiak.

“Zergatik ez dituzu egin gazteleraz edo frantsesez?”, galdetu zion Parisko *Société Cinéaste Amateur*-eko langileak lehen pelikula aurkeztu zuenean, eta Gotzon Elortzak erantzun: “Edozein hizkuntza gutxitu, laguntza audiobisualik gabe, heriotzera kondenatuta dago”. “*Ados, jauna*”, eta baimena eman zion.

Francisco Francoren garaian, hizkuntzak bizirauteko ikus-entzunezkoak funtzeskoak zirela jabetu zen Elortza. Euskadiko Filmategiak gordeta dauzka bere filmetatik hiru, eta digitalizatzen dabiltza, Getxoko Euskara Zerbitzuaren ekimenez. Apirilaren 23an emango dituzte haren omenezko ekitaldian. Izan ere, Bilboko Olabeagan jaio zen 1923an, baina Algortan bizi da duela urte asko.

Euskara debekatuta, errepresioa jasan zuen Elortzak bere ekimenaren ondorioz. Gutxi ezagutzen du hori dena, baina kontatzeko asko dago. Horretarako, Elortzaren gaur hurbildu da UK, egunero kafea hartzen duen tabernara, haren ahotik ezagutzeko historia, solasaldi ederrean.

Parisen lanean zebilela piztu zitzaion euskarazko kontzientzia, aitortu duenez. *Le Monde* egunkarian hizkuntza gutxituei buruzko hainbat artikulua irakurri ondoren, orduan hasi zen ohartzen eus-



Apirilaren 23an omenduko dute Elortza Andres Isasi Musika Eskolan, eta bere filmak eskaini

kararen egoera larriaz. Argazkiak egitea gustuko zuen, eta zineari buruz ezagutzen zuenagaz filmatu eta muntatu zituen pelikulak, artisau-lana eginez.

“*Zitroen bi zaldiko autoa erosi genuen eta ezkutuan gentozen errodatzera; izan ere, poliziek bazekiten euskaraz egin gura nuela eta atzetik neuzkan*”. Lau eguneko bidaia egin ohi zuen Bisi Unanue emaztearen laguntzagaz, “*egun batean jaitsi,*

Euskara debekatuta zegoen eta tortura eta espetxea jasan zituen Elortzak 68an; bere bidetik aldentzerik ez zuten lortu, ordea

bitan grabatu eta laugarrenean buelta”.

Izan ere, bere poltsikotik ordaindu zuen ekipo osoa: kamarak, mikroak, magnetofonoa... Eta etxean bertan muntatu zuen grabatutako materiala. “*Gela batean bizi ginen, han ez zegoen ez urrik, ez komunik, eta hantxe egin behar nuen dena*”. Eta emaitza? artisau-lan bikaina,

baina “*asko kostatakoa*”. Eta ez ekonomikoki bakarrik, ondorio errepresiboak ere ekarriko zizkion eta.

Izan ere, 1968an itzuli zen Algortara eta laster atxilotu zuten. Komisaldegian torturak jasan zituen eta sei hilabete eduki zuten Basauriko espetxean. Euskarazko zinerako lehen urratsak berak eman zituen, baina esan bezala, kostata. Ondorengo urteetan etsi gabe

ibili da lanean, militantzian, herrian eta euskaraz. Gaur egun, ordea, minduta begiratzen die Elortzak euskaldunei, gazteleraz entzutean. “*Hura zer zen ez dakite eta ezagutzera eman behar da*”. Agian hor ere badago kokka: egindako bidez jabetu eta euskaraz mintzatu, hizkuntza biziko bada. ○

Ion Lopez Barrena > Euskadiko Filmategiako zuzendari-kontserbadorea

“Hizkuntza aldetik guztiz iraultzaileak izan ziren Elortzaren filmak; horrelako bidegileak behar dira”



Ion Lopez Barrena

Euskadiko Filmategian harribitxiaren moduan gordeta dauzkate Gotzon Elortzaren filmak. Ion Lopez zuzendari-kontserbadoreak hitz egin digu horien balio artistiko eta kultural izugarriaz.

—Euskarazko lehen filmak ei dira Elortzarenak.

—Guk dakigula, bai. Horiek dira, bere osotasunean, euskaraz izateko pentsatutako lehen produktuak, euskaraz narratu eta aurkeztutakoak. Gerra aurretik egin zuten Euskal Herriari buruzko lehen film sonoroa, *Au Pays des Basques* frantziarra, 1930ean. Ez dauka narratzaile, bertsoak eta kantak entzuten dira euskaraz, baina intertituluak frantsesez daude.

—Hortan datza beren balioa?

—Bai, noski, baita kalitatean ere. Elortza delineante zen Parisen, hona zetorren eta ahal moduan filmatu zituen bidaia gida modukoak: *Ereagatik Matxitxakora* eta *Helburua Gernika*; Bizkaiko kostari izugarritzko errepasoa egin zion. Nabari da zineari

buruz bazekiela, eta batez ere, argazki-gintzari buruz. Enkuadreak onak dira eta koloreen erabilera oso ederra da. Gainera, 16 milimetrotan grabatzen zuen, eta edonork ez zeukan horrelako kamararik; zaletua behar zuen eta zinea maitatu. Zinerako sensibildade berezia nabari da. *Aberria* filman, bestalde, dagoeneko sentimendu aber-tzalea sumatzen da. Etnografikoki zein euskararen arlotik, garrantzi berezia dauka: Balendin Enbeita eta Jon Lopategi bertsolariak agertzen dira, baita Victor Olaeta ere, aurrekua dantzatzen: Bizkaiko euskal kulturaren inguruan puntako pertsonak bildu zituen. Ez da edozein modutan egin erreportaje ziztrina.

—Halere, ekoizpena artisau-lana da. —Guztiz artistikoa, emaitzan nabari da. Audioan akatsak daude, berak ahal moduan jarri zuen soinua. Musika antzekoa da pelikula guztietan, zaletua izanik, ez zuelako edukiko diskoteka bat. Gauza oso interesgarriak egin zituen, eta artisau-lan horrek, balio erantsia ematen dio. Guretzako altxor txiki bat dira, horregatik gabilza zaharberritzen.

—Filmategira eraman aurretik ezagutzen zenituzten?

—Filmatagia txikia da, ez da egon material teknikorik gauza guztiak gordetzeko eta klasifikatzeko; aparatuak lortu heinean erreperatu ditugu. Elortzaren pelikulak garrantzitsuak zirela bagenekien, agian ez

horrenbeste, ordea. Telezinean ikustean ohartu ginen bere kalitate handiaz, oso delikatuak izan arren. Pelikulak degradatuz doaz. Elortzarenak ondo zeuden kolore aldetik, baina audioa ez. Beraz, salbatu genituen nolabait, baina zaharberritzea merezi zuela esan genion Getxoko Euskara Zerbitzuari. —**Baina Elortzak dioenez, ez zuen arterik egin gura, euskara bultzatu baizik.**

—Bai, berak hori esan zidan. Baina helburu bakarra horixe bazuen, oso ondo egin zuen, euskara zabaltzeaz gain, arlo artistikoa ere landu zuelako. —**Euskaraz egiteak ondorioak ekarri zizkion, atxiloteta eta kartzela, euskara debekatuta zeukatena; beraz, bidea zabaltzeko balio izan zuen bere lanak?**

—Zalantzarik gabe. Garai hartan *astakeriak* egin behar izan zituzten, norbaitek eman behar lehen pausoa; berari tokatu zitzaion kasu horretan, bere kabuz, bere bitartekoekin eta bere kezka propioagatik bakarrik; baina horrelako bidegileak behar dira. Eusko Jaurlaritzak badauka izen bereko sorta bat euskal kulturaren gauza bereziak egindakoei buruz, eta Elortzak mereziko luke bertan atal bat. Gero urte asko igaro behar izan ziren euskarazko filmak ikusi ahal izateko. Elortzarenak, hizkuntza aldetik, guztiz iraultzaileak izan ziren garai hartan, ez zelako horrelakorik egin ordura arte. ○

Iñaki Muniategi > Areeta

“Eskursioa moilatik oinez, zubiko barkilan airez eta inkursioa baporean urez ”



“Bizkaiko zubiko goiko plataformatik bista ederra dago oso”

Fulanok eta Autanok kainoberarekin arrantzuan dihardute: pantxituek, txitxarue ta berdelaa. Lupinarik?

Urliak eta Sandiak kristoren uhina atrapa-pau juek, alboan Mengano eta Berendia olatu haundi baten gainean jabisek eta merengano be ahaleginetan jabik, ze ausartak eta surflari onak diren gure mutilak! Kirol portuan bela ontziak ageri dira, batzuk oihalak zabaldurik haizea arrapatu nahi dute. Kai ertzean hegazti eta txoriak ageri dira. Hara! Martin arrantzalea, zein kolore politak dituen, umea nintzanetik ez dut ikusi, ahateak, ubarroiak eta gehiago.

Bizkaia zubiak bere eskumako zutabea Txurruka eta Olabarri kaiak bat egiten duten tokian, hau da zubiko enparantzian,

oinarrizten du; bertan lorategi bat dago. Nun dira arteak, haritzak, pagoak eta abar? Aranondo japoniar bat dakusat. Eskursio inkursio polit bat egin genezake: eskursioa, moilatik oinez, zubiko barkilan airez eta inkursioa baporean urez Portugaletetik Areetara, zer deritzozu?

Bizkaia zubiko goiko plataformatik bista ederra dago oso, bokale guztia dakusat eki-hegoaldeetik Bilboraino doa soa, ipar-mendebaldean bista itsaso hegian galtzen da eta hau egia da neuk ikusi dotelako! Behean itsasadarrean batelak arraunlariz josita, sasoa eta indarra, zelako giharrak gure mutilanak o! Baina neskak dira! Zelako gorputzak! Zer neska ederrak! Ez da munduan inor, ez da inor inun zuekin edertasunean

lihardukeenik! Eta Olabarri eta Txurruka kaietan bizitzak azkenerako oparizat gorde digun kirola: paseoa, hemen Jose Luis euskaldun berriak nekez eta urri egiten du, baina egin egiten du. Inaki kontulari ona baina erdalduna, baita Norberto be erdalduna. Kaixo! Fernando euskaldun berria baina betikoa balitz lez egiten du. Neskari? A, bai bertan pila bat, baina ez naiz ausartzen. Hau pena, joder!

Haurra nintzela ikasi nuen kopla bat gomutatzen dut: Jose Benitxo zalaue/ Ferrolen esaminaue/ Portugaleteko barran/ Trantze estue pasae. Hemen inguruan nun edo han behar zuen ba barra horrek. Baina nun exaktuki? Kaixo! Hi mazusta koloreko begitxu baltz dun polita hik ba al dakin? o

Taberna Unai

Urgulleko txokoa barrero ere zabalik!



Unai Paredes Urgull kaleko tabernan

Behin eta barriz ikusi ditugu Algortako Urgul kalean dagoen tabernaren atea zabaltzen eta ixten. Oraingo honetan, Unai Paredes gazte algortarra animatu da txokoari bizia ematen. Otsailaren 11n zabaldu zituen atea Taberna Unai, lokala hiru urtez itxita egon ostean: “Zabaltzeko aukera sortu zitzaidan; etxeokaz aukera aztertu eta animatu nintzen”. Oso gaztetatik, 16 urte dituenetik, dabil Unai ostalaritzan beharrean; esperientzia ez zaio falta.

Goizeko 8:30etik aurrera, gosariak, pintxoak eta tragoak eskaintzen dituzte. Tortillak, ogitarteko txikiak zein beste hainbat aukera daude pintxoaren artean, barra gainezka daukate: “Asteburuetan pintxo landuagoak egiten ditugu, aukera zabalagoa izateko”. Bariku eta zapatuetan gau giroan ere murgildu gaitezke

Taberna Unain; izan ere, goizeko hiru-rak arte zabaltzen dute.

Jendearen erantzunagaz pozik dago Paredes: “Denetarik, hurbiltzen da. Goizetan merkatura doazenek gosaria hartzen dute. Eguerdian poteo zaleak etortzen dira; Algortako beste taberna batzuetan behar egin dut eta ezagutzen naute”. Gauetan, Amezti kaleko betiko giro gaztea: “Giroa dago, baino gehiago izatea espero dut. Gainera, lokal hau itxita egon da azken hiru urteotan eta kosta egingo zaio”. Futbol zaleek Athleticen partiduak ikusteko aukera ere badute. Eta hori guztiaz informatzeko, Facebookera jo dezakezu; herriko tabernek euren tartetxoa daukate sare sozialetan. o

Urgull kalea 2, ALGORTA
Tf. 94 466 16 61

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoa • bakailoa
- arrain freskoa

antebarreran bazkari eta afariak enkargatzen
Erreserbak: 94 463 03 92
Artea Euzko Euzkara, Gobeia erakundearen aitona • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara. Urdaitegiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarrí 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Tuletoa 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Toponimoa > Areeta

Areeta (auzoa):

1885ean Azkarragak egin zuen Iturrizaren Historia de Bizcaya-ren argitalpenean urbanizatu aurreko Areetako deskribapen zehatza du. Liburuan Arabiako etengabeko areatzekin parekatzen du, baina orduko aldatuta dagoela esaten du. Euskararen baztertzearen adibiderik gardenena dugu hau. Nahiz eta inguruko euskaldunek Areeta, edo honen aldaerak, besterik ez erabili, Erandiotik Barrikaraino, udal artxibuan ez da Las Arenas besterik agertzen. Euskal izenaren aipu zahar bakarra (los arenales de Areta) non eta Portugaleteko artxibuan ageri zaigu Getxoko udalagaz izandako pleito baten ondorioz. Kasu honetan erabiltzen zen izena islatu zen dokumentazioan, ziurdanik Portugaleteko administrazioak ez zuelako, Getxoakoak bezala, izenak itzultzeko ohiturarik.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37



JATETXEA

Tf./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROI. PORTUA
Antzeri z.g. • T.F. Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa"

Prensa - Frutak lehenak - Aldizkariak - Litzentziak

Ordufa Mendatea 1 Telefonoa 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erretabak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Sasoi bete-betean zaude: osasuntsu, energiaz gainezka, baikor, gogotsu... Gauza guztiak ondo egiten saiatuko zara, bai lanean bai maitasun kontuetan. Zorte on!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Gorputzez eta arimaz gustura sentituko zara, baina, kontuz: gehiegikeriak saihestu behar dituzu. Ez gehiegi jan, eta lo egiteko behar dituzun orduak hartu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Urduri eta aldi berean ixaropentsu sentituko zara. Nolabaiteko zaharbarritzea (fisikoa eta animikoa) eta aldaketa garaia biziko duzu. Esperientzia polita izango da.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Ez zaituzte zure inguruan gertatzen denagaz gehiegi larritu, horrek tentsioa eragiten dizu eta zuri ez zaizu horrelakorik komeni. Lanean aurrera egiteko gogo itzela.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Astean ondo sentituko zara eta zure itxura eta osasuna zaintzeko gogoia eta premia izango duzu. Baina aholku bat: inguruan gertatzen denari arreta apur bat jarri beharko zenioke.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Orain, zer edozer komeni bazaizu, zure bihotza maite zaituzten pertsonari zabaltea da. Ez zaizu damutuko, eta gainera, zuk badakizu eurek bakarrik lagun zaitzaketela.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Bizipozez eta osasuntsu sentituko zara eta arazorik suertatuz gero, horiei aurre egiteko gauza izango zara. Harremanetan, gauza bera: gustuko pertsonetikiko desioa piztuko zaizu.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Oraindino gauza asko ikasi behar duzu, eta orain duzu sasoi egokia. Harremanetarako (lagunak, bikoteak, lankideak...) erraztasuna, eta gainera, ordaina jasoko duzu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Astiro bada ere, orain arte egindako esfortzuaren saria jasotzen hasiko zara. Aurrera egiteko garaia duzu, baina hori bai, kontu handiz, guztia ez da arrosa kolorekoa eta.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Bereko ahalmenak garatzeko garaia ona da hau zuretzat. Harremanetan (lagunak, lanari lotutakoak) ederto moldatuko zara eta lagun barriak egiteko aukera izango duzu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Gauza asko eta barriak egin gura izango dituzu, baina modu lasaian, patxadaz. Baliteke, diru dela-eta, eztabaidaren bat izatea. Beraz, arretaz ibili: ez gastatu ez daukazuna.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Nekatuta sentituko zara, baina lortutakoa ikusita, ahaleginak merezi izan duela ohartuko zara. Diru kontuetan, aste mugituak eta bizirik izango dira zuretzat: erosketa, gastuak...

PRAKAGORRI




ERAGINKORTASUNA, KALITATEA ETA EMAITZAK BERMATUZ.

Ulermen jasoko irakurketa azkarra, memoria garatzeko teknikak, ikasketarako metodo aurreratuak, denboraren optimizazioa eta kudeaketa, kontzentrazioa, pertsona- eta lanbide-garapena, oratoria, idazkera bikaina... etab.

**IKASKETETAN ETA LAN JARDUNEAN ETEKIN HOBEA LORTZEKO
TEKNIKA AURRERATUAK ESKAINTZEN DITUGU.**


PRAKAGORRI S.L. Jesusen Bihotza kalea 2A GETXO (BIZKAIA)
Tf. 685735484 - 944915763 prakagorri@prakagorri.es - http://www.prakagorri.es



Keko

LABIRINTOA

BI BAKARRIK DIRA BERDINAK



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nola du izena
Getxoko Bizarra
Lepoan Euskara
Elkarteko lagunek
martxan jarri duten
ekimena?

> Aurrekoaren erantzuna: Bizkerre Futbol Taldeak

> Irabazlea: **Eneko Gisasola***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*Zer ikus daiteke
zenbaki honetako
albumean?*

- **Jolas parkeak**
- **Elefanteak**
- **Tximinoak**

> Aurrekoaren erantzuna: Kioskoak

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Usategi**
kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA **La Gusana**
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ARRATE UNIZETA-BARRENETXEAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GORLIZKO UREZARANTZA IKASTOLA, 1978

Hona hemen Gorlizko ikastolako lehen andereñoa eta aingerutxo aurpegia duten lehen 2/3 urteko ikasleak, argazkilariari arreta handiz begiratzen daudela. Urezarantza auzoan, Fano mendian, toki zoragarri baten zegoen. Eraikina antzinako "Escuela de Barriada" (Bizkaiko Foru Aldundiak sortutakoak dira eskola horiek, 1919tik 1936ra) bat zen. Gurasoek zapaturu lan eginez egokitu zuten aspaldiko eskola hori, bertan ikastolak bere bidea has zezan. Eta ez hori bakarrik, furgoneta ere erosi zuten andereñoa eta umeak bertara erroteko. Gorlizen, Euskal Herriko hainbat tokitan bezala, herritarren ilusioak eta eskuzabaltasunak sortarazi zuten herriko ikastola 1977-78 ikasturtean. ○

Zutunik: Ander Izquierdo, Patricia Ibarra, Marina Arana, Mikel Arriaga, Antxon Urrutia, Iker Urbizu, Unai Andracka, Asier Urrutia, Aitor Elordui, Sandra Bilbao.

Makurtuta: Janire Murua, Alejandro Garcia, Borja Gaubeka, Irantzu Garmendia, Izaskun Berasaluze, Iñaki Casimiro, Ana Uriarte, Itziar Izquierdo.

[aitormenak]

OSCAR TEROL > aktorea, telebista aurkezlea, idazlea...

“Ez dut topikorik gustuko, umorea egiteko aitzakiatzat erabiltzen ditut”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Gizonezko donostiarra; begiluzea eta eskuzabala.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu?

Historiakoa inor ez, ez ditut ezagutu-eta, entzundakoa bakarrik dakit.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Tom Hanks edo Robbin Williamsen edozeinetan. Umorea daukate, baina giza aldea ere bai; ondo molda ninteko horrelako paperetan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Margolari, 25 urte bete arte hori besterik ez nuen egiten.

Txikitako oroitzapen bat?

Zoriontasuna, senideakaz eta lagunakaz.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Erabilitako arropa aulki batean pilatzea.

Aitor dezakezun bizio bat?

Jatea, karta-partidak... eta sexua ere esan gura nuke, baina ezin; zalea naiz baina teoria mailan.

Zertan edo norengan sinesten duzu?

Pertsonengan, gizaterian... Hemen sufritzeak zentzuren bat daukala pentsatu gura dut, eta oinaze horretatik ere aska gaitzkeela.

Gehien gorroto duzun topikoa?

Ez ditut topikoak gustuko, etiketa jarri eta egia-erdiak ezartzen dituzte. Umorea egiten dut topikoak saihestu ditzakedalako, edo umorerako aitzakiatzat erabil ditzakedalako. Egiaren parte bat ere gordetzen dute eta gustuko dut existitzea, baina horiek desmuntatzen jakin behar da.

Eguna ala gaua?

Eguna batez ere, baina gauak baditu une utziezinak.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Donostia, Euskal Herri osoa maitemintzeko modukoa izan arren. ○

LABURREAN— Orain gutxi arte, batez ere aktore lanean ezagutu dugu Oscar Terol (Donostia, 1969), telebistan umorea egiten, ETBko *Les Lourviers* edota *Vaya Semanita* saioetan, adibidez. Euskal Herrikan kanpo beste kate batzuetan aritu ondoren, etxera bueltatu da eta hilabete batzuk daramatza, *Uyyyyy!* programan, baina aurkezle gisa oraingoan. Zuzenean emititzen dute Donostiako Miramongo telebista-estudioetatik, eta horrelako saioa egiteak nahiko denbora kentzen diola aitortu du. Gura izanez gero, astelehenero ikus dezakezu, iluntzean.

Leioan udaberria euskaraz blai dator!

Apirilaren 23an 20:00etan 6€	Bertso-saioa: Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Xabi Paya. Gai-jartzailea: Nahikari Ayo.	Kultur Leioa Auditoriumean
Maiatzaren 9an 12:00etan	Dantza: Erdizka Lauetan	Euskal Etxeen plazan
Maiatzaren 14an 18:00etan	Magia: Sun Magoa	Euskal Etxeen plazan
Ekainaren 2an 18:30etan 6 €	Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Irrien Lagunak	Kandelazubieta kiroldegian



Erantz honek Bizkaiko Foru Aldundaren laguntza jasotzen du.

BERTSO-SAIOA

Amets Arzallus
Aitor Mendiluze
Unai Iturriaga
Xabi Paya

Gai-jartzailea:
Nahikari Ayo

Apirilak 23
20:00etan

Kultur Leioa Auditoriumean
6 €



Sarrerak txarteldegian

Informazioa
94 607 25 70



sarea josten
www.sareajosten.net

EUSKARAREN ALDEKO AUZOLANA GETXON

Herriko hainbat taldek, elkartek eta eragilek **sarea josten ekimena** jarri dugu martxan euskararen alde gabiltzanok, euskaraz lan egiten dugunok eta euskaldunok elkar ezagutzeko eta elkarrekin hauek egiteko:

ERAKUSKETA

apirilak 9-25
Getxoko 10 lekutan

JARDUERAK

apirilak 9-24

KUNAK

Koska irratian (108.0)
apirilak 9-24

HERRI-BAZKARIA

apirilak 24
Romoko frontoian

